


7.

Biltzar Nagusia

EUSKAL HERRIA GORRIRA
Aldaketa borroka
borroka eragin

Ponentzia

Politiko Sindikala



Ponentzia Politiko sindikala



001616168 / 00888 819 81 001616168 / 00888 819 81 001616168

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

Aurkibidea

1. NAZIOARTEA	5
1.1. Mundua	
1.2. Europa	
1.3. LAB nazioarteko testuinguruan	
2. EUSKAL HERRIA	11
2.1. Aldaketa politikoa Euskal Herria	
2.2. Nazio askapen prozesua eta eredu sozio-ekonomikoa. Neoliberalismoak aurrera egiten du	
2.3. Klase borrokaren bilakaera	
3. ALDAKETA POLITIKO ETA SOZIALA EUSKAL HERRIAN	25
3.1. Marko demokratikoa, aldaketarako giltza	
3.2. Euskal Estatu Sozialistari begira	
3.3. Aldaketa sozialak eraginez, aldaketa politikoa bultzatu	
3.4. Borrokak antolatzeko irizpide orokorrak.	
4. ALDAKETA SOZIALAK ERAGINGO DITUEN EKINTZA SINDIKALA	35
4.1. Klase subjektua berrosatzeko ekintza sindikala	
4.2. Lantokietako errealitatea eraldatuko duen ekintza sindikala	
4.3. Kolektibo kaltetuenen egoera espezifikoei erantzungo dien ekintza sindikala	
4.4. Negoziazio kolektiboa	
5. EKINTZA SINDIKALA INDARTZEKO BITARTEKOAK	45
5.1. LABeko kideak, aldaketak eragiteko militanteak	
5.2. Antolakuntza sendotzea, ezinbestekoa	
5.3. Borroka ideologikoaren garrantzia	
5.4. Borroka moldeak	
5.5. Indar metaketa	

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

1. Nazioarte

1.1. Mundua

1. Kapitalismoak aurrera egiten du Berlingo harresia erori zenetik martxan jarritako ofentsiba globalean. Doktrina neoliberallean oinarritzen den ofentsiba honetan merkatua da jaun eta jabe eta politika ekonomiko eta sozial guztiak daude merkatuaren irizpideen menpe.

2. Finantza kapitalak behar dituen errentagarritasun baldintzak finkatzea da botere politikoa dutenen lehentasunezko jarduera irizpidea, soldaten, langileen eta kapital produktiboaren kaltetan. Horrela bada, nazioarteko bitarteko ekonomikoen papera indartzen da (G8, G10 edo Munduko Bankua), bitarteko politikoak indargabetzen diren bitartean.

3. Finantza kapitala, Estatu indartsu eta boteretsuenekin aliatuta, bere interesen arabera eredu ekonomiko, sozial eta kulturala ezartzen ari da mundu mailan.

4. Globalizazio neoliberalak multinazionalak kontrolatzen duten lan merkatu globalizatua ezarri du. Langileon esplotazio mekanismoak orokortu, pertsonen premiak merkantzia bihurtu, zerbitzu publikoak murriztu eta pribatizatu eta planetako baliabide naturalak ustiatzen dituzte kapital multinazionalaren mesedetan.

5. Multinazionalen deslokalizazio politika basatiak soldata gastuen murrizketa hutsean oinarritzen dira eta lan baldintzak okertzen ari dira: langileen eskubideak urritu, erantzun sindikala zaildu, bereizketa sozialak handitu, emakumeei lan baldintza duinak oztopatu eta eredu sozial patriarkala indartzen dute.

6. Kapitalaren hegemonia da mundu mailako eredu politiko, ekonomiko eta sozialaren ezaugarria, baina kapitalismoaren bilakaerak bere mugak eta arazoak ere baditu, azken urteetan azalarazten ari direnak.

7. "Merkatuaren lehia askearen" bitartez eraiki duten menperatze sistema multinazionalen esku uzten ari da lehengaien kontrola, elikagaien ekoizpena eta politika ekonomiko, laborar zein sozialak. Honen ondorioz, hidrokarburoetan oinarritutako energia eredu krisian dago, lagun asko migratu behar izan dira eta lanean egonkortasun eta segurtasun falta areagotu da.

8. Honetaz gain, honela metatzen den kapitalaren ondorioz, kapital espekulatibo kantitate izugarria sortzen ari da eta honek gero eta maizago eragiten ditu ekoizpen prozesuak hondatzen dituzten finantza krisiak; gainproduktio krisiak, ustelkeria eta eredu honen gaitzespena mundu mailan.

9. Munduko argazkia oso adierazgarria da: 5.000 herri baino gehiagok osatzen dugu mundua. Herri hauetatik guztietatik gutxi batzuek sortu dute Estatuak, ez dira 200era iristen. Eta azken hauetatik dozena batek, munduko ondasun ekonomikoen zati nagusiaren jabe eginda, botere politikoa bereganatu dute. Argazkia kezagarria bada ere, ez da mugiezina; are gehiago, azken urteetan sakoneko aldaketak eragin ditzaketan mugimenduak ikusten ari gara.

S Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

10. AEBetako botere ekonomiko eta militarrek zuzentzen duen globalizazio eredu hau agorpen itxura hartzen hasia da eta, harrigarria bada ere, merkatuaren disfunczio propioen erruz gertatu da hau. Orain arte eskenatoki honetan kokatzen ez ziren zenbait herrialde kolokan jartzen ari dira egungo ordena (Txina, India, Errusia...) eta zenbait herri hasiak dira euren etorkizun ekonomiko eta politikoa erabakitzeko gaitasuna aldarrikatzen. Ildo honetatik, Latinoamerikako Herrien kasua gailendu behar dugu (Venezuela, Bolibia, Ekuador, Kuba...). Azken urteotan nazioartean protagonismo propioa exijitzen dihardute eta burujabe izaten ari dira, politikan ez ezik, ekonomian ere bai, politika sozial aurrerakoien aldeko apustua eginda. Zailtasunak gorabehera, errealitate hau bereziki da interesgarria.

11. Elikadura subiranotasuna, demokrazia partizipatiboa, baliabide naturalen kontrol nazionala, esku-bide sozialen eta Herrien identitate kulturala bezalako kontuak bestelako nazioarteko harreman eredu bat posible izateko aukera berriak sortzen ari dira.

12. Dena den, kapitalismoaren ofentsibak ezkerreko indarrak ahuldu ditu. Zailtasun handiak daude mundu mailako erreferentzia alternatibo orokorrik eraikitzeke; gure eremua den Europan errealitate hau guztiz gordin agertzen da. Baina aspaldian ez bezala, kapitalismoaren nagusitasunari eta bere pentsamendu bakarrari mugak jarri diezazkioketen proiektuak eraiki daitezkeela adierazten duten mugimenduak badaude.

13. Testuinguru honetan, sindikalismoak ere baditu berezkoak eta sakonak diren arazoak langile borroka aldaketarako eragile bilakatzeko. Neoliberalismoak esplotazio moduak sakondu, ekintza sindikaleraiko gaitasuna ahuldu eta "ongizate estatua" sortu zuten oinarriak murriztu ditu eta sindikalismoa, neurri handi batean, neoliberalismoaren eraginak disimulatzeraz eta alferrikako pakto politika lagungarria burutzera dedikatu da.

14. Ezkerreko mugimenduak alternatiba erreala eraikitzeke dituen zailtasunek sindikalismoak langileriarene transformazio eta borroka gaitasuna artikulatzeko eta indartzeko dauzkan eragozpenekin bat egiten dute.

15. Gure ekintza sindikal sozio-politikoaren ereduak erro politiko, sozial eta sindikal sakonak izan behar ditu ezkerreko eraldaketa proiektuan. Horixe izango da modu bakarra egoera honi buelta emateko. Aukera handiak daude eta sindikalismoak herri bakoitzean zein mundu mailan ezkerreko estrategia bultzatu behar du esplotazioari aurre egiteko, merkatua pertsonen gainetik eta indibidualismoa elkartasunaren gainetik egotea galarazteko.

16. Esan genezake internazional sindikal biek (Munduko Federazio Sindikalak eta Nazioarteko Konfederazio Sindikalak) mundu mailan sindikalismoaren egoera zein den argi erakusten dutela.

17. Honela, gehiengo izateko asmotan sortu den Nazioarteko Konfederazio Sindikalak ez dakarkio langileriarene aldaketa itxaropen handirik, bere oinarri ideologikoetan bertan hautematen denez. Internazional sindikal honek ez du zalantzan jartzen logika kapitalista eta, praktikan, erreformismo sindikala sendotzeko beste etapa bat ezartzeko besterik ez da.

18. Sistemaren sostengua den sindikalismo honen aurrean, beharrezkoa da alternatiba ekartzea eta mundu mailan sindikalismoaren zereginari prestigioa ematea. Honetarako, sistema kapitalistari kritika zorrotza egin behar zaio eta nazioarte mailan langileen borroka koordinatu behar dira, ahalik eta eraginkorren bihurtzeko, denon etsaiak diren kapital transnazionalaren eta politika neoliberalen aurrean. Hauxe da datozen urteotan Munduko Federazio Sindikalak burutu behar duen lana, sistema sostengatzen duen sindikalismoaren aurrean erreferentziazko alternatiba bilakatzeko joateko.

19. Ikuspuntu honekin, ekintza globala eraiki behar dugu Herri bakoitzeko ekintzekin, hortxe dautzalako alternatiba sindikala gorputzu eta indartu dezaketene benetako indarrak.

20. Kapitalismoaren krisiak ez dira konponduko besterik gabe langileen interesen mesedetan. Alternatibak eraiki eta borrokatzen ditugun neurrian etorriko dira aldaketak. Argazkia mugitzen ari da, munduko Herrietan, Estatua izan edo ez izan, burujabetza politiko eta ekonomikoa berreskuratzeko aldarrikapenak eta mugimendu politiko-sozialak indartzen ari dira. Burujabetza prozesuak alternatibaren motorrak bilakatzen ari dira.

1.2. Europa

21. Europar Batasuna kapitalaren eta Estatuena Europa eraikitzen duen proiektua dela begi bistakoa da. Estatuena eskutik eraiki den proiektua da, beti ere multinazional handien eta finantza kapitalaren mesedetan.

22. Europar Batasunean sartzeko eta bertan irauteko agintariak erabiltzen dituzten adierazleak ekonomia kapitalistaren osasuna neurtzen dutenak dira: inflazioa, defizita eta zor publikoa. Kontrako aldean dauden prekarietatea, jarduera tasa, soldaten arteko desberdintasuna, emakumeen eskubideen aitortza eta berma, hezkuntza, etxebizitza edota zerbitzu sozialak ez dute inolako garrantzirik.

23. Herrialde berriak sartuta bilatzen duten helburua Europako kapitalaren interesei lehentasuna ematea da, Herrien eta biztanleen gainera. Funtsezko xedea merkatuak zabaltzea eta lan kostuak murriztea da.

24. Lisboako estrategia Europako politika ekonomikoaren eta sozio-laboralaren bizkarrezur bihurtu dute eta honek Batasunaren helburuak argi eta garbi definitzen ditu: 2010 urterako Europar Batasuna (Europako multinazionalak) munduko ekonomiarik lehiakorren bilakatu nahi dute, beti ere irizpide kapitalisten arabera. Honetarako, behar dituzten baliabide publiko guztiak erabiliko dituzte: zergak murriztu, zerbitzu sozialak privatizatu eta lan prekarietateaz baliatuko dira. Eta hau guztia txarto deitutako "merkatuko lehia askearen" izenean.

25. Estrategia honek zuzentzen ditu Estatu kideetan garatzen ari diren politika ekonomiko, laboral eta sozialak. Flexiguritate moduko amarruen, zerbitzu publikoen eraginkortasunik ezaren edo aldi baterakotasunaren bitartez, merkantzia eta kapitalen zirkulazio askea oztokatzen duen oro deuseztatzean eta irabazi tasak handitzean datza estrategia hau.

26. Azpimarratzekoa da politika hauek guztiek emakumeengan eragiten dutela bereziki. Emakumeen lan merkaturatzea orokorra da kapitalak horrela behar duelako, besteak beste. Emakumeen jarduera eta enplegu tasak handitzen ari dira, baina posizio subsidiarioan sartzen dira lan merkatura, betidanik egokitu zaizkien zaintza lanak bere horretan mantentzeko.

27. Horrez gain, milaka dira miseriatik, gerratik eta globalizazio neoliberalak gainerako herrietan eragindako desorekatik ihesi Europar Batasunera etorri diren paperik gabeko lagunak. Baztertutako auzoetan bizi diren lagun horiek ezkutuko lan-merkatuaren menpe daude eta sistemarentzat lan eskubide zein eskubide hiritarrak gabeko lan indar merkea besterik ez dira.

28. Estatu kideen politikaz gain, prozesua bere osotasunean garatzeko itun eta egitasmoak bultzatu dira azken urteetan. Itunarekin batera, jatorriko herriaren lan

S Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

legeak harrerako herrian aplikatzea helburu zuen Bolkestein Zuzentaraua izan da azken urte hauetan Europa mailan langileriaren kontrako eraso bortitzena.

29. Bi egitasmo hauek aurrera ateratzeko prozesuak hainbat erresistentziarekin topo egin izana oztopoa izan da, baina ez du prozesuaren joera aldatzeko balio izan. Izan ere, Itun Konstituzionala ordezkatzeko duen Erreforma Ituna politika neoliberal hauek indartzeko tresna da. Helburu berberak dauzka, baina izen berri horrekin lortu nahi dute herritarrek parte ez hartzea eta erreferendumik behar ez izatea onartua izateko. Itun berrian, beraz, ez zaie herritarrei erreferentziarik egiten. Estatuaren Europa izango da. "Interes orokorreko zerbitzuak" (lehen "zerbitzu publikoak" zirenak) merkatu legeen arnaren menpeago jarri dituzte, kompetentzia askea bermatu dute eta lanaren prekarizazioa zein kapitalaren mugimendu askatasuna ezarri dute. Euroa Europa berriaren arima da eta multinazionalak bihotza. Estatuaren oinarritzen den kapitalaren Europa honetan Herriek ez dute lekurik, ez eta herritarren hitzak ere.

30. Baina kapitalaren Europa honen atzean, Estatuak bideratu eta kontrolatzen duten Europa honen atzean, bizirik dauden eta beren etorkizunaren jabe izan nahi duten Herriak badaude.

31. Ipar Irlandan gauzatutako prozesu politikoa, Kosovo Serbiatik independizatzeko Montenegroren erreferendum bidez hartutako erabakia -2006-, Eskozian 2010ean erreferenduma egiteko iragarri duten asmoa, Flandrian dagoen eztabaida edo Euskal Herriari buruz Europako Parlamentuan egin adierazpenak oso esanguratsuak dira, Europako mapa behin betikoa ez dela erakusten duten adibideak ditugu eta.

32. Horrekin batera, Europan garatzen den neoliberalismo sutsuari aurre egiten dioten langileak daude. Itun Konstituzionalari eman erantzunak edota Bolkestein Zuzentaraua atzera bota izanak, oraindik ere, erresistentzia egiten duten langile sektoreak badaudela adierazten dute.

33. Urteetan kudeaketan murgildua egon den sindikalismoak, Europan nagusi dena zoritxarrez, ez du kapitalaren ofentsiba honi aurre egiteko gaitasunik. Erreferentzia nagusia den Europako Sindikatuen Konfederazioaren kontzertazio ereduak krisiak jota dago, ez du Europan garatzen diren politika ekonomiko eta sozialetan eragiteko gaitasunik. Baina sindikalismoaz eman nahi den irudi homogeen eta bakarraren gainetik, borrokarekin aldatuak eragiteko apustua egiten duten sindikatuak badaude, Alemanian edo Frantses Estatuan ikusi dugunez.

34. Erresistentzia eta borroka hauen lekukoa hartu eta erreferentzia politiko-instituzionala izan behar den ezkerreko mugimendu politikoaren gabezia oso agerikoa da, dena dela. Europako sozialdemokratiak eta eskuinak oinarrituko ardatzetan zein praktikan eredu sozio-ekonomiko berbera daukate, ezkerreko indarren kaltetan eta jendartearen zabaltean ari den ikuspegi atzerakoien mesedetan.

35. Herrien eta langileen Europan aldeko alternatiba sindikal eta politikoa eraikitze beharra nabarmena da; horixe izango baita kapitalaren ofentsiba honi langileon bat egiteko aurre egiteko bidea finkatu dezakeena. Alternatiba orokorraren mesedetan egin behar ditugun borroka lokaletan dago beselako Europa eraikitze aukera.

1.3. LAB nazioarteko testuinguruan

36. LAB eragile aktiboa izango da gaur egungo globalizazio neoliberal ereduaren kontrako borrokan eta, egungo nazioarteko harreman ereduaren benetako alternatiba artikulatzeko, behar beste ekimen jorratuko ditu, Herrien burujabetzan eta sozialismoan oinarrituta.

37. Ildo honetatik, LABek autodeterminazio eskubidearen alde lan egingo du, eskubide hau funtsezkoa eta ukaezina delako. Eta, hortaz, aplikatu eta gauzatu dadin lagunduko du, hauxe baita biderik egokiena

gaur egun munduan existitzen diren gatazka nazionaleri amaiera emateko. Bide honetan, apustua egiten dugu elkarlan dinamikak inplementatzeko eta Estaturik Gabeko Sindikatuen Nazioarteko Konfederazioaren papera indartzeko. Izan ere, burujabetzaren alde borrokatzen diren Nazioetako langileok askotan antzeko arazoak izaten ditugu eta zapalketa bikoitzari egin behar diogu aurre, nazio eta klase zapalketari, alegia.

38. Era berean, mundu mailan inposatu nahi duten globalizazio inperialista eta neoliberalari aurre egiteko nazioartean planteatzen diren ekimenekin bat egingo du LABek. Horretarako, beste erakunde sindikal batzuekin eta mugimendu sozialekkin batera, parte hartuko dugu G7/G8, Munduko Bankua, Nazioarteko Moneta Funtza, Ekonomia Lanaketza eta Garapeneko Erakundea (OCDE), Munduko Merkataritza Erakundea eta abarren politikei kontra egiten dieten ekimenetan. Erakunde hauek eskusio eta bazterkeriaren errudunak dira: sektore eta baliabide publikoen pribatizazio politikak; mundu mailan suertatzen ari den lan harremanen prekarizazioa; milioika lagun derrigorrez migratu behar izatea; ingurumenaren suntsiketa; pobretutako Herri eta herritarrei lapurtu eta arpilatzea.

39. Era berean, deslokalizazio basatiak burutzen edo horiekin mehatxatzen duten multinazionalak salatuko ditugu. Hauekin batera, nazioarteko lan arauak urratzen dituzten enpresak ere salatuko ditugu, hala nola, lan bortxatuaz zein umeen esplotazioaz aprobetxatzen direnak, edo arraza, politika, sexu, erlijio edo bestelako arrazoiengatik langileak diskriminatzen dituztenak. Ahal dugun neurrian, jarduera sindikala jazartzen duten gobernu eta enpresak eta sindikalisten erreprezio eta hilketak ere salatuko ditugu.

40. Munduko Federazio Sindikalean geure papera indartzeko apustua egin dugu. Izan ere, autodeterminazio eskubidearen inguruko tesiak konpartitzen ditugu, eta irakurketa bera egiten dugu gaur egungo munduko egoera politiko-ekonomikoz eta nazioarteko testuinguruan klase sindikalismoaren paperaz.

41. Munduko Federazio Sindikalak langile klaseari begirako erakunde izaera sakontzeko lan egingo du LABek, benetako alternatibak eraikitzen joateko, eta nazio esparrua gaitzen duten eta Herri ezberdinetako koordinazioa behar duten borroka sindikalei erantzun egokiak emateko. Mundu mailan kapitalak langileria kolpatzen du "zatitu eta garaitu" lelopean eta gure helburua izan behar da mundu osoko langileek politika honi gogor egin diezaiotela aurka.

42. Era berean, kasu zehatz bakoitzean aztertuko dugu egokia ote den Europako enpresa komiteetan parte hartzea -horrelakorik existitzen den enpresetan, jakina-. Bertan parte hartzeko gure sail sindikalak ados egon beharko dira eta gure helburua beti izango da ekintza sindikal erasokorra burutzea.

43. Gaur egungo merkatu globalizatuan, zenbait kasutan, ahalik eta borroka eraginkorrenak gauzatzeko, sindikatuko federazioek nazioarteko ekintza sindikala bere egin beharko dute, beti ere ikuspegi konfederalaz.

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

2. Euska Herria

44. Nazioarteko testuinguru honetan, Euskal Herriak nazio askapen eta askapen sozialaren aldeko borroka burutzen du, eta honen bilakaerak bi ziklo politikoren artean igarotzen egotera eraman gaitu. Bidegurutze honetan Estatuak beren presio politiko-errepresiboa areagotzen ari dira gure herriak aldaketa politiko eta sozialaren egoera lortzea ekiditeko.

45. Euskal Herriak bere izaera nazional, kultural eta linguistikoaren alde eginiko borrokkak Estatuaren ukapen eta inposaketa estrategiak baldintzatzea lortu du eta honek aukera berriak bideratu ditu herri honen bilakaerarako. Inolako zalantzarik gabe, eremu kultural, sozial, instituzional, sindikal eta abarretan gauzatu diren eta bizirik dirauten erresistentzia politikoak eta herri erresistentziak indar korrelazio berriak bideratu dituzte sakoneko nazio gatazkaren inguruan: bertan esku-bideak dituen eta nazioartean lekua eskatzen duen herria egon badago.

46. Nazio askapen prozesu hori, ezker abertzalearen lidergopean eta sindikatuen zeregin espezifikoa eta historikoa, justizia eta aldaketa sozial egarritz bustia egon da beti ere.

47. Nazio askapen eta klase borrokkaren dialektika egoki egon da lotua eta aldaketa politiko eta sozialerako strategiaren oinarriak ikusmuga independentista eta sozialetan ezarri ditu. Akulu sozial funtzio honen bidez, nazio askapen borrokkak kontzientzia eta jarrerak aktibatu ditu, Euskal Herrian burutu beharreko aldaketei proiektzio eta izaera estrategikoa emanik.

48. Asimilazio tresnak (egungo eredu juridikoak) neutralizaturik eta euskal jendarteak nazio izaeraz gero eta kontzientzia handiago hartuta, Estatuak presio instituzional eta errepresiboa areagotu dute. Honekin batera, abertzale edota nafar mozorroaren eta Estatuarekin itun berrietarako joeraren artean mugitzen den eta interes ekonomikoak lehenesten dituen erregionalismoaren (PNV-UPNren) margen politikoak murriztu egin dira.

49. Marko juridiko-politikoaren agorpen orokorrak ez du esan nahi jendearen perzeptzioa eta honi eragiten dioten aldagaien inguruko indar korrelazioa homogeneoak direnik Euskal Herriko lurralde guztietan. Lurraldeen arteko desberdintasunekin heldu gara ziklo politiko baten amaierara, eta estrategia nazionalaren diseinu egokia egitekotan, ezberdintasun hauek gogoeta eta ebaluazio espezifiko beharko dute.

50. Lizarra-Garazi garai politiko berrietan inflexio puntua izan zen. Alde batetik, Estatu ereduaren inguruko krisia azkartu eta sakondu zuen eta bestetik, unibertso abertzalean autodeterminazio eskubidearen (erabakitzeko eskubidearen) erreferentzia zabaltzen eta sakontzen lagundu zuen, diskurtsoaren eta aldarrikapenaren ardatz nagusi moduan, ondoren autonomismo politikoaren jokaera eta tesiak baldintzaturik.

51. Bidegurutze politiko honetan, gorabeherak gorabehera, egoera bideratzen

ahalegindu izan dira, mozorro ezberdinekin, baina beti ere euskal subjektu nazionala aitortu ez eta bere borondatea askatasunez eta demokratikoki adieraztea errespetatzen ez duten planteamenduekin, hala ere, maniobra politiko hauen aurrean euskal jendarteak antidoto garrantzitsuak garatu ditu.

52. Estatuaren estrategiek eta erregionalismoa birkokatzeko zailtasunek eremu politiko, sindikal eta sozial independentista eta progresistari zabaltzen diote bidea. Hau sindikatuaren ekimenak artikulatzeko erreferentea izan behar da, ezker abertzalearen ibilbidean eta proiektioan oinarritutako eremu alternatiboa, alegia.

53. Sindikalismoa, langileak, aldaketa politiko eta sozialerako prozesuan subjektu sozial determinantea izan behar dira. Behar diren indar korrelazio berriak, langileak progresiboki aldaketaren eduki eta ezaugarriekin bat etorrituz gero, joango dira mamitzen.

54. European Estatu berriak sortu izana, Eskozian autodeterminazio eskubidea praktikara eramatea edo Irlandako prozesuan eskubide hau aitortzea, Belgikako nazio aferaren bilakaera, Kosovorena bezalako ibilbideak... hauek guztiak Euskal Herriaren aldarrikapena indartzen duten erreferentziak dira, gure errealitate nazionala eta gure burujabetza aitortuak izateko orduan.

2.1. Aldaketa politikoa Euskal Herrian

55. Espainiar eta Frantziar Estatuak ezarri eta garatu izan duten barne kolonialismo ereduaren aurkako borroka, hauek sostengatzen zituen sare juridiko-instituzionala ahuldu du eta, ondorioz, euskal subjektu nazionalaren indar korrelazio berria eragin du.

56. Espainiar Estatuak, eta antzeko terminoetan Frantsesak ere, egoerari erantzuteko Euskal Herrian ziklo politiko berri baten izaera eta edukiak baldintzatzera eta galgatzera daramaten tresna juridiko eta politikoak abiatu ditu.

57. Oinarrizko eskubide zibil eta politikoak urratzen dituen errepresio orokor estrategia barruan eta Espainiar Estatuaren eremu mediatiko, kultural eta politikoetan artikulatzen den abertzaletasunaren kontrako gurutzadarekin batera, ezker abertzalearen aurkako neurri politiko-judizialek aldaketa politikoari harresia ezarri nahi diote -Israelek Palestinarekin egin bezala-. Harresi hau ez da porlanezkoa edo burdinazkoa, baina bai konpartitzen duela filosofia bera ekimen politiko eta hesi judizialari dago-kienez.

58. Ipar Euskal Herrian, inposatutako eredu jakobinoaren aurrean, aitorten eta instituzionalizazio propioaren aldarrikapena hedatzen doa, Batera, Nekazal Ganbara edo hiru herrialdeetarako autonomia-rena bezalako ekimenak bultzaturik.

2.1.1. Espainiar Estatuaren krisia

59. Lurreko ereduaren inguruko trantsizio politikoaren agortuta dago. Kudeaketa instituzionala badago, administratiboa, alegia, baina politikoki goia jo du bere barneko arazo nazionala konpondu gabe.

60. Autonomia Estatuaren bidez proposatutako deszentralizazio administratiboak Espainiar Estatuaren nazio arazoa asimilatu eta disolbatzeko helmuga izateko asmoa eduki zuen. "Kontrolpeko lagapen politiko" edo "nazionalismoak ahultzeko alternatiba koiuntural" modukoa.

61. Ikusmolde honek espainiar nazionalismoaren debate politikoan badirau. Egun, Euskal Herriarekiko gatazka, hau da, lurralde eredu, espainiar nazionalismoaren intolerantzia eta izaera antidemokratikoa erakusten duen Estatu arazoa da, eta honek etengabean agertzen du, egungo ereduaren kaiturik dauden nazioen eskubide eta aldarrikapenak deuseztatze xedez, gurutzadetan sartzeko joera. Halaber,

espainiar politikan suertatzen den lehia alderdikoi eta, batzuetan, fratizidaren eragile zentral bihurtu da.

62. PPren "abertzalekeria konstituzionala", "eraso nazionalista" delakoaren aurrean Estatuaren irmotasuna bultzatzeko helburu zuen ildo politiko, judizial eta mediatikoaren ikur moduan taxutu zen. Aznar buru zuen neofrankismoak proposatutako neurri eta jarrera politiko berberekin lehiatzen jarraitzen du PSOEk, oposizioan zein Gobernuan.

63. Lurralde ereduaren krisian, globalizazio neoliberal gordinen, Estatuaren periferia eta erdigune politikoko talde ekonomikoen interes eta protagonismoen arteko talkek lurralde ereduaren eragina izan dute.

64. Lurralde ereduari lotutako marko juridiko-politikoaren agorpena hazkunde ekonomikoaren koiunturan areagotu egin da, eta Estatuaren bizitza politikoaren eragile ezegonkortzaileen bilakatu da.

65. PP eta PSOE hainbat autonomiatan aurrera eramaten ari diren erreformak egungo deszentralizazio administratiboaren birmoldaketa, egokipen edo eboluzio txikien -konpetentzia eremuen arabera- eskemetan planteatuta daude, eta, hori bai, nazio historikoetako erreforma edo aldaketa politikoen izaera baldintzatu nahi dute.

2.1.2. Euskal gatazka Frantses Estatuan

66. Frantses Estatuak gero eta indar handiagoa hartzen duen arazo politikoa du, lankidetzaren polizialen eskemetatik haratago doana eta bere barruko arazo gisa agertzen dena.

67. Ipar Euskal Herrian onarpen nazional eta instituzionala aldarrikatzen duen masa kritikoa finkatzen eta zabaltzen ari da maila politikoan. Eredu klasikoak gaindituta, euskaldunekiko dagoen defizit demokratikoaren existentzia era progresiboan kokatzen ari den esparru bat da hau.

68. Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan errepresioaren gorakadak jendartearen sektore dinamikoengan zuzenki eta kolateralki eragin nahi du.

69. Aurreko PSFren gobernuarekin gertatu bezala, euskal jendartearen eskakizunei Sarkozyren Gobernuaren ukoak jarrera abertzaleek aurrera egiteko ziklo politikoa ahalbideratu behar du.

2.1.3. Negoziazio prozesua

70. PSOE Espainiar Estatuaren Gobernuaren iristeak, Katalunia eta Galiziako kudeaketa politikoen aldaketak, eta Euskal Herrian hasitako balizko negoziazio prozesuak Aznarren aldia amaitutzat emateko eta lurralde eredurako bigarren trantsizioaren itzaropenak elikatu egiten zuten.

71. Euskal Herrian negoziazio prozesuak elkarri lotuta dauden bi auzi bideratu eta egituratu behar zituen, behar ditu eta beharko ditu. Batetik, herri borondatearen baldintzapen politikoen aroa amaitu eta onarpen nazionala eta euskaldunon borondatearen errespetuan oinarritutako joko arauak zehaztu, muga, hipoteka eta edozein mota edo izaerako derrigortzerik gabe. Bestetik, konfrontazio aroa amaitu, ukapen, inposizio eta biolentzia terminoetan.

72. Itxaropen hauekin batera, ezker abertzaleak inziatibak abiatu zituen eta elkarrizketa, negoziazio eta irtenbide konpartituen eszenatoki baten parte izateko borondate osoa azaldu zuen. Honen haritik, sindikatuak, bere gogoeta eta interbentzio ildoan, behin betiko irtenbide demokratikoen eszenatokia bultzatzeko protagonismoari eutsi dio beti.

73. Prozesu horren garapena sakonki baloratu eta aintzat har daiteke hainbat aldagai kontuan harturik, baina, LABentzat, PSOEek aukera honekin espekulatu egin duela objektiboa da konponbide politikorako eredu faltagatik, PPK lotutako uztarritik ez askatzeagatik, eta gako eta interes elektoralen menpe egoteagatik. Zentzu honetan, Nafarroa Garaia estatusa aldatzea ekiditearren, PP-UPNk antolatutako ofentsibarekin gertatutakoa sintomatikoa da.

74. PSOE negoziazio prozesuan Estatuaren bermerik gabe sartu zen, ezker abertzalearen aurkako estrategia judizial eta politiko osoari eutsirik, eta termino politikoetan definitutako norabiderik gabe. Behin prozesuaren kudeaketan, Katalunian egindakoa bezalako iruzurra egiten eta prozesua erreforma estatutario hutsen eskemara desbideratzen saiatzen ari zela nabarmena zen.

75. PSOEek egindako espekulazio politiko hau ez zen posible izango PNVren koltxoirik gabe, azken hau sozialistekin "bide orri" partikularra prestatzea hautatu eta negoziazio prozesuan PSOEren kide leial bilakatu baitzen. PNVren "ordainik gabeko leialtasuna" Espainiar Estatuari zegokion eta ez, ordea, euskal nazioaren eskubide demokratikoei.

76. Alderdi honekin batera erakundeak kudeatzen dituzten beste sektore politiko batzuk ere arrastatu zituen PNVren jarrera honek eta erakutsi zigun erregionalismo autonomistak zelako beldurra dien eskenatoki demokratikoei, honelakoetan independentismoak, ateak zabalik izanda, bere proiektua beste aukerara politikoen baldintza berberetan garatu ahal izango lukeelako. PNVk badaki eskenatoki horretan ahula dela, horixe da Estatuarekin itunerako duen joera eta ezker abertzalearen aurkako itsumenaren arrazoia.

77. Negoziazio prozesuaren hausturak eta konfrontazioaren, eskubideen urraketan eta biolentziaren areagotzeak, ziklo politikoen arteko trantsituaren beste fase batean kokatu gaitu. Guztiok dakigu gatazkak ez duela konponbiderik errepresio, inposizio eta bortxazko konfrontazio eskemetan. Alternatiba bakarra elkarrizketa, negoziazioa eta aitortpen nazionala eta Euskal Herriko lurralde guztietako gizon eta emakumeen borondatearen errespetua dira.

78. Hausturak bake eskenatokia eta konponbide politikoetarako irrikatan dagoen jendarteari eragiten dio baina, lanean jarraitzea eta ekarpenak egitera behartu era egiten gaitu. Negoziazio prozesu honek egindako bidea etorkizunerako erreferentzia izango da. Marko demokratikorako ezker abertzalearen proposamenek planteamendu argi, posible eta pragmatikoa definitzen dute.

79. Urte hauetako esperientziak, halaber, zererako balio behar du, independentzia eta sozialismoa helburu duen eremu independentista eta klasekoaren estrategia progresiboaren, negoziazio prozesuaren eta akordio demokratikoaren loturaz hausnarketa egiteko. Horretan, noski, sindikalismo abertzalearen eta langileen protagonismoa funtsezkoa da.

2.1.4. Aldaketa politikoa ekidin ezina da

80. Negoziazioa egon ala ez, abagune politikoaren ezaugarri nagusia Euskal Herrian gauzatu behar den aldaketa politikoak izango dituen edukien gaineko pultsua da.

81. PPrene eta PSOEren asmoa da euskal soberania zein erabakitze eskubidea ukatzen duen oinarri konstituzionala bere horretan mantentzea eta, aldi berean, egungo Konstituzioaren baitan indarrean dauden marko estatutarioen erreforma hutsalak garatzea. PSOEren gobernuak PPrene eskema berdintsuak defendatzen ari da, orain arte lurralde ereduari dagokion bigarren trantsizio politikoari heltzeko gai izan ez delarik.

82. Jarrera honen aurrean, bada esparru politiko, sindikal eta sozial bat Euskal Herria aitortzea eta herritarren borondatea errespetatzeko bermeak aldarrikatzen dituen, hauek baitira egungo marko juridiko-politikoak aldatzeko zutabe nagusiak. Zutabeok aldaketa politikorako eskenatokia ahalbideratuko dute, non herritarren borondatea izango den euskal lurraldeen arteko kanpo zein barne harremanen definiziorako muga bakarra.

83. Erabakitze eskubidea, lau herrialdeetako herritarren barne zein kanpo harremanak, kultura eta jarrera politiko guztien elkargunea izan beharko litzateke eta izan ahal da. Gatazkaren konponbideari ekingo dion akordio politikoa ezinbestez izan behar da zeharkakoa eta euskal herritarren borondatea errespetatzeko konpromiso, joko arau eta bermeetan oinarritu behar da.

84. Negoziazio prozesuan edo UPN-PSN paktuetan ikusi ahal izan dugun moduan, Espainiar Estatuaren estrategiaren zutoinaren bat lurralde zatiketa, subjektu politikoa da. Areago, esan genezake lurraldetasuna erabili nahi duela euskal subjektu nazionala zein barne eta kanpo harremanen eredu edo estatusak erabakitze eskubidea disolbatuko duen dike politiko gisa. Aurreko beste fase historiko batzuetan bezala, Madrilak Nafarroa Garaia menperatzea eta herrialde hau gainontzeko euskal herrialdeetatik isolatzea Estatu auzia da.

85. Bi jarrera nagusi hauen artean (egungo funts politikoak aldatuko ez dituzten estatutuen erreformak, batetik, eta egungo mugak gaintzea ahalbideratuko duten oinarriak eratu, bestetik)PNV daukagu, kudeaketa instituzionala eta bere interes ekonomikoen defentsa bermatuko dizkion birkokapen politiko bila. Bere ildo politikoaren arabera, PNV erreforma estatutario hutsen bila doa, aitorten nazionalik gabekoak, eta norabide hau ezin dute baldintzatu alderdi barruko bestelako iritziek edota sentsibilitateek.

86. PNVren jarrera honek helburu bikoitza du: alde batetik, bere negozio politiko-ekonomikorako ziklo berria bermatzea eta, bestetik, eremu abertzalean alternatiba estrategikoa izan daitekeen esparru independentista eta aurrerakoien eboluzioa baldintzatzea. Jarrera hau "Espainian eroso sentitzea" esaldiak adierazten duen filosofiaren kapitulu berria izango litzateke, hori bai, burukide kastaren interesak elikatzen jarraitzeko aukera emango dion boterearekin eta proiektu ekonomikoekin (AHT).

87. PSOE eta PNVren artean prestatzen ari diren estatutuen balizko erreformek erabakitze eskubidearen faltsutze politikoan dute oinarria. Eskubide hau inolako obligazio juridiko-politikorik ez duen kontsultarako eskubide hutsarekin ordezkatzek, oinarriak jartzen ditu indarrean dauden markoen itxuraldaketari ekiteko eta, horrela, eredu konstituzionalaren jarraipena izango diren estatutuen erreformak gauzatzeko. Hau da, kontsultarako eskubidea euskal subjektu politikoari dagokion erabakitze eskubidearen alternatiba gisa saltzen da, eta, gainera, EAEra mugatua.

88. Ibarretxeren kontsulta proposamena, zehaztugabea eta inolako garapenik ez duena, bere testuinguruan kokatu behar da, zeinean PNV noraeza ezin argiagoa den: Estatuarekin pakto bat "bilatzeko" beharrean dago baina, era berean, izugarritzko zailtasunak ditu gehiengo abertzalearen eskaerak jasoko dituen proposamena euskal jendarteari aurkezteko orduan. Errealitate horretan eragin behar du LABek eta independentziaren aldeko esparru politiko, sindikal eta sozial osoak.

89. Euskal jendarteari kontsulta egitea herri borondatea garatzeko eta bideratzeko oinarritzko lanabesa da, zalantzarik gabe. Baina galdera asko geratzen dira airean: zertarako, non, nola... planteatu nahi den kontsulta gaur egungo egoera politikoan. Hipotesirik logikoena, hauteskundeak aurreratzeko eta ondorengo bernegoiazio estatutariorako maniobra izango den posibilitatea da, ezker abertzalearen aurkako erabateko erasoaren markoan kokaturik.

90. Nafarroa Garaia dagokionez, erregimen forala aldaezina ez dela erakutsi da, eskuineko nabarristek berau blindatzeko abian jarri duten kanpaina bortitzak argi utzi duenez. Negoziazio prozesua haustu eta PSOEek UPNri Nafarroa Garaiko Gobernua lotsagarri eman ondoren, aldaketaren kontrako blokea berrosatzen ari dela ikusten dugu: UPN-PP, CDN eta PSN, eta hauek legitimatzen dituzten UGT eta CCOO, eragile sozial moduan. Honen aurrean, ezker independentista dago, frankista nafarrek diseinatutako Foru Amejoramendua historikoki borrokatu duena eta Nafarroa Garaia identitate nazionala eta erabakitze eskubidea defendatu izan duena. Azkenik, alderdi ezberdinen koalizioa den Nafarroa Bai ezker abertzaleak pairatzen duen apartheid eta errepresio egoeraz aprobetxatzen ahalegiten da (ezker independentista izan baita, ilegalizatu izan arte, Nafarroa Garaiko esparru abertzaleko indar nagusia); honetaz gain, nafar jendartearen aldaketa grina "hirugarren bide" moduko zerbait bihurtzen saiatzen da, "hirugarren bide" honek UPN-CDN-PSNk markaturiko marra gorriak (Konstituzioa, Amejoramendua, vascuencearen legea, Itoizko urtegia, abiadura handiko tren...) gainditu ez eta, hortaz, bere egin arren.

91. Ezker abertzalea subjektu politiko gisa ezabatu nahi duen estrategia errepresiboak testuinguru honetan eragin egiten du. Estatuak eta PNVk Euskal Herriko aldaketa politikoaren motorra ahuldu eta baldintzatu beharra daukate, gerora begira errazago kontuan hartuko eta kudeatuko diren proposamenetarako tarteak zabaltzeko.

92. Atxiloketa masiboak, Mahai Nazionala kartzelaratzera, disidentzia politikoaren aurkako sumarioen sententziak, hauteskunde prozesuetako ilegalizazio berriak, espainiar demokraziaren "termometroa" dira eta Euskal Herrian gauzatu behar den aldaketa politikoaren izaera geldiarazi, trabatu eta baldintzatzera zuzendutako mugimenduak dira. Beste maila batean bada ere, eta hain ondorio larririk izan gabe, ekimen judiziala erakunde autonomikoen kontra ere jotzeak termometro horren temperatura zein baxua den argi adierazten du.

93. Euskal jendarteak dinamika errepresibo honen aurreko erantzuna areagotu behar du, eskubide zibil eta politiko urraketa eta independentismoaren kriminalizazioa salatuz baina, aldi berean, aitortpen nazionalaren eta autodeterminazio eskubidearen aldarrikapenean aktiboa izango duen esparru politiko, soziala eta sindikala artikulatuz.

94. Sindikalismo abertzalea datozen aldaketa sozial eta politikoetan benetako aktiboa izan behar da, aldarrikapenentarako protagonismoa bereganatzen eta bere praxia lantokietan eta gizartean garatzen. LABen ustez, koiunturalismoak albo batera utziko dituen eta eduki politiko, sozial eta sindikaletan izaera estrategikoa izango duen lankidetzaren zikloa beharrezkoa da.

2.2. Nazio askapen prozesua eta eredu sozio-ekonomikoa. Neoliberalismoak aurrera egiten du.

95. Nazio askapen prozesuan aurrera egiten ari gara, egungo marko juridikoa krisian jarri dugu eta Euskal Herriak bere etorkizunaren jabe izateko erabakia hartu du. Baina ezin esan genezake gauza bera eredu ekonomiko eta sozialari dagokioenean. Ezin esan eredu ekonomiko eta soziala krisian dagoenik.

96. Bruselatik, Madriletik edota Parisetik zuzentzen diren politika ekonomiko, laboral eta sozialetan

oinarririk, bertoko kapitalaren interesak zaintzea da egungo instituzioen paper nagusia, ongi baino hobeto betetzen duten papera.

97. Azken lau urteetan langileon aldarrikapenei bizkar ematen jarraitu dute, jendartearen gehiengoaren beharrianak aintzat hartu gabe. Kapitalaren neurrira hartzen dira erabakiak, geroz eta baztertzailagoa den kudeaketa instituzionalarekin.

98. Neoliberalismoak langile borrokan egin kalteak ere agerikoak dira, eta nekez lortzen dugu politika instituzionaletan eragiteko gai izango den erantzuna antolatzea. Bata bestearen atzetik inposatu dizkiguten erreforma laboralen atzean langileria indargabetzeko estrategia osoa dago eta azken urteetan ekintza sindikala antolatzeko garaian ditugun zailtasunetan nabarmen agertu zaizkigu ondorioak.

99. Klase gatazkaren egoera sakon aztertu behar dugu, beraz. Baina gurea Euskal Herrian kokatzen den borroka izanik, bizi dugun momentu politikoak eskaintzen dizkigun aukerei arreta berezia jarri behar diegu. Izan ere, eraldaketa soziala helburu duen borrokaren muga estrukturalak gainditu ditzakegun unea bizi dugu, aldaketa sozialari bide emango dion aldaketa politikoak gauzatzeko aukerak zabaldu ditugulako Euskal Herrian.

2.2.1. Merkatua politika ekonomiko eta sozialen helburua da.

100. Merkatua politika ekonomikoen ardatz bihurtzen duten joerak urtez urte ari dira iraunkortzen gobernu autonomikoen eskutik. Gai sozio-ekonomikoetako politika publikoak merkatua garatzeari eta honek aurkitzen dituen oztupoak ezabatzeari begira egiten ari dira.

101. Gobernu eta administrazio autonomikoek burutzen dituzten politika publikoak neoliberalismoan daude oinarrituta eta merkatuaren menpekoak dira. Honela, izan beharko luketen politika ekonomikoan eragiteko aukera eta eskubide sozialak zein zerbitzu publikoak defendatzeko beren paper nagusia gero eta murriztagoak dira.

102. Politika publikoen norabidea merkatuaren esku uzten da. Honen arabera, kapital errenten gaineko zergak murriztu eta zeharkako zergak handitzen dituzten politika fiskalak burutzen dituzte eta, honekin batera, zerbitzu eta prestazio sozialak pribatizatu eta urritzen dituzte. Hau guztia kapitalaren esku ahalik eta baliabide publiko gehien uzteko helburuaz.

103. Administrazio publikoek bultzatzen duten estrategia hau, "lehia askearen" gezurrean oinarrituta, kapital metaketa izugarria ahalbideratzen ari da, batez ere finantza kapitalaren eskutan. Honek kapital espekulatiboari botere handia ematen dio, inbertsio produktiboaren kaltetan.

104. Garapen eredu honen estrategia nagusia honako hau da: presio talde ekonomikoen interesak babestea; kapitalari etekin handiena ahalik eta denbora laburrenean lortzea, nahiz eta jendartean eta ingurumenean kalte handiak eragin; eta ekoiarpen kosteak diru publikoaz merketzeko azpiegiturak garatzea.

105. Kapitala metatzeko politika hauek, era berean, lan harremanak suntsitu egiten dituzte. Euskal enpresak nazioarteko kapitalaren gero eta menpeago daude eta enpresen lekualdatze mehatxuak enplegua prekarizatzeko erabiltzen ari dira.

Ekoizpen prozesuak kanporatzen dira eta, gainera, multinazionalak prozesu hauek kontrolatzen dituzte. Egoera hau gaur egungo lan harreman eredia urratzen ari da, etorkizun enpresariala eta azpikortzen zein enpresa hornitzaileen enplegua enpresa hauen eskutan uzten baita.

106. Lehen sektorea ere ez dago merkatuaren presioetatik aske. Gure kasuan, nekazaritza eta arrantza sektoreak komertzializazio enpresa handien presioaren pean daude. Hauek jatorri-prezioak zein azken prezioak monopolizatzen dituzte eta elikagai burujabetzarako oinarritzkoa den elikagai ekoizpenaren eredu iraunkorarekin amaitzen ari dira.

107. Eskubide sozialak eta hauek bideratzen dituzten zerbitzu publikoak liberalizaziorako eta hazkunde ekonomikorako oztopotzat hartzen dira. Gobernu autonomikoen honen inguruko estrategiak bultzatzen dituzte, hala nola, eskubide horiek zalantzan jartzea, babes sozialaren maila laburtzea eta zerbitzu publikoak pribatizatzea.

108. Berdin da babes sozialean Europako batez bestekoa baino zortzi puntu beherago bagaude, barne produktu gordinari dagokionez. Berdin da aurrekontuz aurrekontu Europarekiko aldea handiagotzen bada. Berton daukagun lanbide arteko gutxieneko soldata Europakoaren erdia bada, hori ere ez da esanguratsua. Diskurtso ofizialarentzat garrantzitsuagoa da sozietateen zerga are beherago jaitea, nahiz eta, barne produktu gordinari dagokionez, Europako batez bestekoaren azpitik egon.

109. Merkantilizazioaren ideologia administrazio publikoaren eta zerbitzu publikoen esparrura zabaldu da. Honek ondorio anitz ditu: baliabide publikoak kapitalaren interesen zerbitzura jartzen dira; herritarrok ez dugu parte hartzen politika publikoen ebaluaketan; eta lan harreman eredia negoziazio kolektiboaren ukazioan, prekarietatearen zabalkundean eta zerbitzu publikoen urraketan oinarrituta daukagu.

110. Politika ekonomikoaren norabidea merkatuaren esku uztearen ondorioz, hazkunde ekonomikoa gero eta proportzio handiago batean ari da enpresariarentzako irabazi bihurtzen, kapitalaren metaketak enpresa multinazionalen boterea areagotzen du eta, hori dela eta, eremu publikoaren kudeaketan parte hartze soziala murrizten da eta sektore publikoaren pisua ekonomian gero eta urriagoa da.

2.2.2. Aberastasunaren banaketarik gabeko hazkunde ekonomikoa

111. Azken urteetan eratu den hazkunde ekonomikoaren eredia hein handi batean porlanean eta etxebizitzaren negoziarioan, familiak zorpetzean, kapitalaren espekulazio mugimenduetan, gero eta esku gutxiagotan gero eta kapital gehiagoren metaketan, eta patronalaren diru goseak gobernuen kolaborazioarekin finkatzen duen lan harreman eredian oinarritzen da. Baina eredu honen zimenduak ez dira batere sendoak.

112. Enpresa interesek eta administrazioek eskuz esku sortu duten eredu ekonomiko honen erruz, urterik urte lan errentek barne produktu gordinean pisua galtzen dute eta gero eta diru gehiago pasatzen da langileon poltsikoetatik patronalaren poltsikoetara. Eredu ekonomiko hau desberdintasun sozialak areagotzen eta pobrezia mugatik behera bizi den lagun kopurua handitzen ari da. Eredu ekonomiko honek barru eskaria murrizten du eta ez du ekoizpen inbertsioa lehenesten. Diskurtso ofizialak uko egiten dio gure jendarte ereduarentzat eta gure ekonomiarentzat nagusiak diren arazo hauei buruz hitz egiteari.

113. Sektore publikoak aberastasuna banatzeko bete beharko lukeen zereginak pisua galdu du politika publikoetan. Zerga politikek beren izaera erregresiboa bultzatzen dute; aurrekontu politikek kapitalen interesei egiten diete mesede, interes sozialen kaltetan; enpresen ekoizpena eta irabaziak babesten dira, politika publikoen eraginkortasun soziala baino; eta lan jardunaldi bikoitzaren eredu patriarkala iraunkortzen da, emakumeen lan baldintza diskriminatzaileak bezala.

2.2.3. Jendarte eredu prekarioa

114. Lan indarra ekoizpen gastu huts moduan ulertzen da eta, honekin lotuta, langileak esplotatzeko mekanismoetan sakondu egin dute. Honen arrazoia enpresarien irabazi tasaren hazkundera da, tasa hau lan baldintzen eta aberastasunaren banaketa zuzenaren kontura handitzen baitute.

115. Kapitalaren interesen neurrira egindako lan harreman eredu honek ondorio anitz eta ankerrak ditu: Europako batezbestekoaren bikoitza den enpleguaren prekarizazio tasa; gehiegizko lan jardunaldiak; lan erritmoak arintzea; emakumeen lan eta soldata diskriminazioa; etorkinak ezkutuko ekonomian lan indar merke moduan erabiltzea, eta gazteei bizi baldintza duinak eskuratzea oztopatzen dieten soldata kaskarrak.

116. Ondorio hauen artean, lan arrisku eta gaixotasunak areagotzen ari direla aipatu behar da bereziki. Egoera honen adierazlerik nagusia lan istripuen hazkunde etengabea da. Askotan istripu hauen ondorioa heriotza bera da eta honen frogarik lazgarriena Euskal Herrian hil diren langile kopuru handia daukagu.

117. Aldi baterakotasunak, diskriminazioak eta soldata baxuek zera ekarri dute, nahiz eta lanpostua izan, langileek ez izatea pobrezia mugatik irteteko edota bizi proiektu independentea burutzeko aukerarik, gazteei eta emakumeei gertatzen zaien bezala.

118. Lan harreman eredu hau Madril eta Parisetik inposatu eta gure errealitate sindikalarekin zerikusirik ez daukaten gehiengo sindikalek adostu arren, esan beharra daukagu Euskal Herriko enpresariak ereduaren partaide aktiboak direla eta Gasteiz zein Iruñako gobernuak hau aldatzeko borondate izpirik ere ez dutela.

2.2.4. Interes ekonomiko zehatzei begirako marko instituzionala

119. Planifikazio ekonomikoan eskumen urria eta lan harreman eta babes sozialerako eredu propioa eraikitzeko araugintza ahalmenik eza gure garapen instituzionala eta euskal sindikalismoaren interbentzio gaitasuna baldintzatzen ari dira.

120. Estatutuan eta Amejoramentuan jatorria duen egungo markoak egiturazko defizitak ditu marko instituzionala eraikitzeko Euskal Herrian, eskaera sozialei eta gure ehundura produktiboaren beharrei erantzungo dien garapen ekonomiko eredu ezarriko duen markoa, alegia.

121. Baina, honetaz gain, Lan Harreman eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren garapenean ere ahuntzaren gauerdiko eztula diren aurrera pausak egiten dira, Gasteiz eta Iruñako gobernuak estrategia neoliberalak beren gain hartzen dituztelako eta, patronalaren eskutik, bat etortzen direlako gai honen inguruan Estatuan burutzen diren politikekin.

122. Gobernu autonomikoen politika ahal den guztia kudeatzean oinarritzen da eta patronalarekin aliantza iraunkorra daukate beren interesak defendatzeko orduan. Era berean, parte hartze instituzionalerako organoek ez diete euskal langileen aldarrikapenei erantzunik eman.

123. Euskal administrazio publikoetako arduradunek etengabe ukatzen dute Hego Euskal Herrian benetako elkarrizketa soziala burutzeko aukera, honetarako, bazterkeria aplikatzen dute Nafarroa Garaian, eta beste maila batean EAEn,

egungo eskumen markoaren kudeaketa hutsa burutzen dute eta lan harreman eredia zein politika ekonomikoa patronalaren interesen arabera jorratzen dituzte.

2.2.5. Ipar Euskal Herria

124. Frantses Estatua krisian dagoela agerian dago. Alde batetik kapital frantsesak gelditzen diren azken zerbitzu publikoak liberalizatzeko eskatzen dio. Bestalde, Estatuaren rol soziala desagertzera doa, bere aurrekontua murrizten doan heinean.

125. Zerbitzu publiko asko pribatizatzen ari dira: osasungintza, energiak, garraioak... eta honek Frantses Estatu Nazionalaren kohesioa kolokan jartzen du. Aspaldiko partez, hexagonoan emango diren zerbitzuak desberdinak, desorekatuak eta murrizak izango dira.

126. Egoera sozio-ekonomikoari dagokionean, azpimarratzekoa da Ipar Euskal Herrian enpresa handi nagusiek ateak itxi dituztela. Enpleguari dagokionean, zerbitzu ekonomian oinarritua dago.

127. Barnealde eta kostaldeko desberdintasuna areagotu besterik ez da egin ekoizpen industrialaren esparruan. Honekin batera, barnealdeak bizi duen azpiegitura eta lurralde antolaketarik ezak, azken honen basamortutzea eta suntsipena ekartzen du, non barnealdea lo egiteko eremua eta kostaldea lan eremua besterik ez diren bilakatuko.

2.3. Klase borrokaren bilakaera

128. Neoliberalismoaren ofentsibak eragin nabarmenak izan ditu ezkerren esparru sozial zein politikoan. Alternatiba ideologiko sakonen gabeziak nortasun galera eta ikuspegi estrategiko eza ekarri du. Kapitalismoaren fase berriari erantzuteko gaitasuna ez da behar adinakoa, neoliberalismoak bultzatzen dituen balioak hedatzea erraztu duelarik.

129. Egoera honen atzean neoliberalismoak langileriaren aldaketarako gaitasuna indargabetzeko helburuz artikulatutako estrategia oso bat dago; baina noski, sindikatuon jarrera eta jarduerari begiratu behar diogu ere langile borrokaren azterketa zintzoa egingo badugu.

2.3.1. Euskal langile klasearen egoera

130. Gutxi batzuen onurarako finkatua dagoen eredu ekonomiko, laboral eta soziala bideragarri egiteak langileriaren erantzuna indargabetzea eskatzen du. Langileriari aldaketak eragiteko gaitasuna kentzen dion eredia da neoliberalak; langileak sistemari kateatuak eta burumakur edukitzeko mekanismoetan sakontzen duen eredia hain zuzen ere.

131. Enpresarien boterea indartzea eta herritarrak merkatuaren joko arauetara lotzea dira neoliberalismoaren bitarteko nagusiak langileen erantzuna indargabetzeko; gure ongizatea eta askatasuna bermatzen duen sistema bakarra dela txikitatik erakusten digun ideologia nagusiak menpekotasun eredia borobildu egiten du.

132. Erreformaz erreforma hartu diren neurri guztiak enpresarien boterea handitzeko izan dira. Lan baldintzak finkatzeko eta lanaren antolakuntza erabakitzeko enpresariei eman zaien ahalmena muga gabea da eta boterea eskutan, langileria zatitzen eta ahultzen duen lan eredia finkatu dute.

133. Lan munduan enpresarien menpe eta kalean merkatuaren menpe. Bizi proiektua aurrera ateratzeko beharrezkoak diren baliabideak eta zerbitzuak merkatuaren arauetara lotuak dauden heinean, baita herritarrok ere. Kontsumitzeko dugun gaitasunaren arabera dira gure bizi baldintzak azken finean, merkatuan erosi behar dugulako "eskubidedun subjektuak" izateko aukera.

134. Etxebizitzaren arazoa da errealitate honen adierazle argiena eta bortitzena. Etxebizitza izanik bizi proiektu duin eta askea eraikitzeke ezinbesteko bitartekoa, menpekotasun elementu indartsuenetarikoa bilakatu da. Bizi osorako hipoteka bati kateatuak bizitzeak goitik behera baldintzatzen du lan munduan gure aldarrikapenen alde borrokatzea.

135. Neoliberalismoak ezarritako menpekotasun ereduari aurre egingo dion eredu sindikala finkatzetik etorriko da langileriaren borrokarako gaitasuna indargabetzea helburu duen estrategiari aurre egitea. Gure helburua langileak borrokara ekartzea da, langile guztien borrokarako gaitasuna handitzea.

136. Halako helburuarekin lan egiteko garrantzitsua da benetan klase subjektuaren egungo ezaugarriak ongi aztertzea; izan ere, aldaketak esanguratsuak direlako langileriaren osaketan eta borrokari begirako jarreretan.

137. Langileriaren osaketan nabarmen eragin duten bi faktore emakumeen lan merkaturatzea eta inmigrazioa dira. Azken hamarkadan bikoiztu egin da emakumeen aktibitate tasa, emakumeek soldatapeko langile kolektiboan duten pisua geroz eta handiagoa delarik. Aspaldian esan genuen langileriaren egoerari bere osotasunean aurre egiteko ezinbestekoa dela eredu patriarkala gainditzeko borroka egitea. Honekin batera, geroz eta nabarmenago da langileriaren borroka indartuko badugu emakume langileak aktibatzeke eta emakumeen borrokarako gaitasuna handitzeak duen garrantzia.

138. Inmigrazioak ere errealitate berriak sortu ditu langilerian; sindikatuok oraindik orain behar bezala aztertzea eta neurtzea lortzen ez ditugun egoera berriak izan ere. Etorkinek bizi duten diskriminazioa edota patronalak inmigrazioaz egiten duten erabilpen maltzuraren ondorioak aztertzeaz gain, geroz eta anitzagoa den klase subjektua dugula aztertu behar dugu langileriaren batasuna helburu duen eredu sindikalaren bilakaera egokia izateke.

139. Borrokaren aurrean dauden jarrerak aztertuko baditugu belaunaldi berrien egoerari begiratu behar diogu bereziki. Prekarietatea estrukturala izateak hobekuntzaren espektatibak kentzen ditu gazteen artean. Aldaketak lortzea ezinezkoa dela pentsatzeak borrokara lotzea eragozten du. Belaunaldi berriak borrokaren lekukoa hartzea ez ezik, jasaten duten prekarietatearen aurrean subjektu aktiboak izatea ekarri behar du garrantzi berezia eman behar diogularik egoera honi.

2.3.2. Sindikalismoa, aldaketarako eragilea

140. Azken lau urteak ekintza sindikal erasokorra egiteko zailtasunak begi bista-koak egin dituen urteak izan dira, kapituluaren hasieran aipatu dugunez. Kapital-lana konfrontazioan atzera egiten ari gara estrategia eta pentsamendu neoliberalak langileria kolpatu duelako, baina sindikalismoaren egoera dela eta ere bai.

141. Neoliberalismoaren ofentsibak areagotu egin du borroka baztertearen joera instituzioei lotuta bizi eta zerbitzuak eskaintzera mugatzen diren sindikatuetan. Eredu sindikal desideologizatu eta saldu honek ez du etorkizunik langileriari alternatiba eskaintzeaz ari bagara, baina batik bat eredu honek klase gatazkan dituen eragin kaltegarriak azpimarratu behar ditugu.

142. Kudeaketan kokatuak dauden sindikatu hauek langile asko urundu ditu borroka sindikaletik; kontraboterearen erreferentzia eta aldaketa politiko eta

S Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

sozialaren motorrak izan behar garen sindikatuetatik. Askotan jendartearen begietara nagusitzen den erreferentzia sindikala izanik (instituzioetatik horrela bultzatuta), klase jarreraren guztiz kontrakoak diren proposamen eta jarduerekin sindikalismoaren eraginkortasun ezaren pertzepzioa ere areagotzen dute.

143. Euskal Herrian joera sindikal hau auzitan jartzen duenik badago, hala ere. LAB izan da klase sindikalismoaren erreferentzia nagusia Euskal Herrian. Euskal Estatu Sozialista eskuratzeko helburuan aldaketa politiko eta sozialak bultzatzeko estrategiez elikatu eta indartu dugu euskal langileriaren borroka, eta eguneroko interbentzioan erakutsitako koherentziak eta tinkotasunak konfrontazio eredu sindikalaren erreferentzia indartu du langileen artean.

144. Langilerian ez ezik, gainontzeko sindikatuen jarrera eta jardueran ere eragin dugu. Askapen prozesuari lotutako sindikalismoarekin egin dugun ekarpena esanguratsua izan da, edukietan zein eredu sindikalaren bilakaeran.

145. Horrela bada, euskal sindikalismoaren bilakaera zuzentzen duten bi faktore dira esanguratsuak Euskal Herriarentzat: alternatibarik eskaintzen ez duen eredu sindikalaren eragin kaltegarriak eta LABek sindikalismoan eragiteko duen gaitasuna.

146. Zailtasunak zailtasun, gure eredu sindikalean berretsirik, konfrontazioa indartzeko egiten ari garen ahaleginek LABen erreferentzia indartzeaz haratago, borrokaren erreferentzia indartzen dute langilerian. Afiliazio eta hauteskunde sindikaletako datuek LABek eskaintzen duen borroka apustuarekin bat egiten duten langileak badaudela adierazten digute.

147. Azpimarratu behar dugu sindikatu indartzen ari dela, gure kontrako testuinguruan egon arren. LABen bazterketa esparru instituzional guztietatik bultzatzen da: Nafarroa Garaiko apartheid sindikala, Gasteizko Jauriaritzak sindikalismo abertzalea neutralizatzeko asmoz gutxiengo sindikalari ematen dion gehiengoaren papera eta, batez ere, Ipar Euskal Herrian LABen hedapena galarazteko sindikatu estatalen erabakia dira politika honen adierazleak.

148. Faktore hauek egungo testuinguru sindikalean ere eragingo dute, Hego Euskal Herriko mapa sindikala oraindik eta gehiago definituko delako, jarrera politikoak eta ekintza sindikalari begira hartuko diren erabakiak tarteko.

149. Ipar Euskal Herriko langileriaren aldarrikapenak eta ezaugarri propioak aintzat hartu eta horren arabera alternatiba sindikalaren beharra nabarmendu egingo da, Parisetik iragarritako erasoak eta sindikatu estatalen ereduak erakusten dituen gabeziak tarteko.

150. Klase konfrontazioaren egoera berrietara egokitu eta alternatibaren alde borroka egingo duen klase sindikalismoaren beharra eta eskaera egon badago, eta datozen urteetan borroka sindikala berrindartu dezakegula esatera garamatzen zantzuak ere bai.

151. Izan ere, azken urteei buruzko azterketa osoa egingo badugu, kontuan izan behar ditugu herritarren ekimenez piztu eta gorpuztu diren hainbat borroka. AHTren proiektuak duen erantzuna, mugimendu feministak emakumeen kontrako indarkeriari erantzuteko irekitako borroka, etxebizitzaren arazoari aurre egiteko gazteriaren arteko indar metaketa...

152. Euskal Herrian alternatibaren alde borroka egiteko prestasuna begi bistakoa da; finean, langileek osatzen dute historikoki aberatsa eta eraginkorra den herri mugimendua eta, horrela bada, aldaketa politiko eta sozialak bultzatzeko eragileak garen sindikatuok oinarri sendoak ditugu langile borroka indartzeko.

153. Esperientziak argi utzi ditu esparru sindikal abertzalean indarren bilketak eta aktibazioak duen eraginkortasuna eta eskaintzen dituen aukerak. Kontraesanak eta liskarrak hor egonda ere, sindikalismo abertzaleak badu euskal langileriaren protagonismoa indartzeko aukera, Euskal Herriak bizi duen aldaketa politikoan eragiteko eta patronalen aurrean gure indar korrelazioa hobetzeko.

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo



3. Aldaketa politiko eta soziala Euskal Herrian

154. Urteetan zehar hainbat herri sektore borrokatu izan gara egoera honetara heltzeko: aldaketa ekidinezina da eta herritar gehienek bat egiten dute Euskal Herriak izateko eta erabakitzeke daukan eskubidearekin.

155. Aldarrikatzen dugun Euskal Herri libre eta mugarik gabekoa eraikitzeke aukerari ateak behingoz zabalduko dizkion aldaketa politikoa gauzatzeko abagunea errealitatea dugu; izan ere, posible dela eta, batez ere, beharrezkoa dela konbentziturik, euskal langileriaren gaur egungo eta etorkizuneko erronkei ekiteko orduan, finkatzen dugun helburua da hori.

156. Testuinguru honek eskaintzen dizkigun aukerak ezagututa, hurrengo lau urteetarako proposamenak definitzen ditugu. Sindikatuaren hiru jarduera erreferentzial handietan aurrera egiteko proposamenak dira hauek:

- Langileon indarra fase politiko honetan ditugun erronkei begira kokatu, euskal sindikalismoaren eragiletza indarturik.
- Euskal Herrian eraldaketa ekarri behar duen proiektu politiko eta sozialaren inguruan indarrak metatu.
- Langileria zatitu eta ahultzeko estrategiaren aurrean, langile subjektuaren berregituraketa bultzatzen, eta subjektuaren bilakaera aintzat hartuko duen eredu sindikalean sakontzen jarraitu.

3.1. Marko demokratikoa, aldaketarako giltza

157. Aldaketa fase honi erreforma estatutario hutsak egiteko helburuaz ekiteak, indarrean dagoen orden konstituzionala bermatzeko, argi erakusten du Espainiar estatuaren izaera antidemokratikoa. Berrero ere euskal herritarrei erabakitzeke eskubidea aitortzea den oinarritzko ariketa demokratikoaren ukapena eta inposaketa aukeratu ditu.

158. Gaur egun burutzen ari diren errepresio basatia Estatuaren ahultasuna erakusten du. Euskal gehiengo sozialak asimilazio ereduak neutralizatzeko gaitasuna dauka eta, era berean, eskubide nazional legitimoetan zein gure etorkizunaz erabakitzeke subjektua izatea bermatzen digun marko demokratikoa ezartzeko premian oinarritzen den burujabetza prozesua sustatzeko kapaza da.

159. Euskal Herriak nazio askapen prozesu luze honetan etapa asko igaro ditu eta gaur egun bidegurutzean gaude kokaturik: ukapenean oinarritzen den ziklo politikoa behin betiko gainditu edo, bestela, jadanik bizi izan ditugun eta ondorio eza-gunak dituzten iraganeko eskemak errepikatu.

160. Behin betiko irtenbideen alde egiteko eta sakoneko arazoa konpontzeko sasoi da: Euskal Herriaren eskubideak aitortu eta errespetatuko dituen marko demokratikoa definitu eta errealitate berri horretarako bidea ezarri, non herritarren borondatea Euskal Herriaren garapen politiko eta sozialaren gakoa izango den.

3.1.1. Marko nazional demokratikoa

161. Zatiketan eta ukazioan ez dago erabakitzeko eskubiderik. Euskal Herria naziotzat, subjektu politikoat, aitortzea oinarritzko baldintza da erabakitzeko eskubidea lurralde guztietan garatzeko. Gaur egungo markoetatik marko nazional demokratikoa eraiki behar dugu.

162. Estatu biek aitortu behar dute Euskal Herria eta Estatu biek eman behar dituzte urratsak erabakitzeko eskubidea errespetatzeko. Lizarra-Garazin adierazi genuenez, Euskal Herriarena, bertoko herritarrona izan behar da hitza eta erabakia.

163. Ukazio eta inposaketa fasea gainditzen bada, trantsizio fasea hasiko da. Fase horretan euskal herritarron esku egongo da, mugarik eta hipotekarik gabe, markoaren etorkizuneko bilakaera erabakitzea. Marko demokratikoak proiektu guztiak, independentzia barne, aukera berdintasunean gauzatu ahal izateari irekiko dizkio atek.

164. Espainiar Estatuak Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko lurraldeetan kokatu behar du erabakitzeko eskubidea. Eskubide hori aitortu eta errespetatzen duen marko juridikoa ezartzea da aldaketa politikoaren funtsa. Lau herrialdeetako marko autonomikoa finkatzeak herritarren gehiengoaren babesa behar du, bai Nafarroa Garaian, bai eta gainontzeko hiru herrialdeetan ere.

165. Nafarroa Garaia berezitasuna aintzat hartuta finkatu eta eraiki behar da marko berria. Nafarrak izan behar dira beren estatus propioa definitzeko protagonistak.

166. Era berean, Frantses Estatuak Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa Euskal Herria osatzen duten lurraldeak direla eta, hortaz, eskubidedun subjektuak direla aitortu eta errespetatu behar du. Aitorpen honek, herritar gehienek babesarekin, lurralde hauen instituzionalizazioa bideratu behar du.

3.1.2. Lurraldetasunaren garrantzia

167. Lurraldetasunaren eskubidea herriaren existentziaren berezkoa da. Izan ere, subjektu politikoaren lurralde zatiketa izan da gure herri nortasuna galtzeko bitarteko nagusienetariko bat.

168. Egia da marko juridikoak agortu ditugula, baina jendearen pertzepzioa ez da berdina herrialde guztietan eta indar korrelazioa ere ezberdina da markoaren bilakaeran eragiten duten hainbat elementutan. Begi bistakoak diren lurraldeen arteko ezberdintasunak behar bezala aztertu eta neurtu behar ditugu nazio estrategia egoki eta eraginkorra eratzeko.

169. Espainiar Estatu lurraldetasunaren auzian oinarritzen ari da aldaketa politikoa baldintzatzeko. Lurraldetasuna kokatu nahi du harresi gisa euskal nazio subjektua ukatzeko eta berriro ere erabakitzeko gure eskubidea ez aitortzeko.

170. Frantses Estatuak ere bere urratsak egin ditu Ipar Euskal Herriaren lurraldetasunaren kontra. Ikuspegi zentralista horren pean eta bere erregio-departamentuaren logikan sakondurik, zerbitzu ezberdinak "berrantolatzeari" ekin dio, euskal lurraldeak etengabe banatu eta loturak Landetako hegoaldearekin edota Biarnorekin azkarturik. Maila politiko-ideologikoan ere UMPko eta bestelako hainbat tokitako politikari eta hautetsik Biarnokoekin lobbia osatzen dituzte haien loturak sustatzeko.

3.1.3. Erabakitzeko eskubidea

171. Euskal herritar guztioi aitortu eta errespetatu behar zaigu Euskal Herriaren etorkizunaz erabakitzeko eskubidea, Euskal Herriaren edozein lurraldetan bizi garelarik ere.

172. PSOE eta PNVren zuzendaritzaren eskutik datorren erreforma estatutarioa erabakitzeko eskubidearen adulterazio politikoan oinarrituko da, Euskal Herrian erabakitzeko eskubidearen aldekoa den gehiengoan espezijismo faltsuak sortu nahian.

173. Egungo markoetatik abiatuta, Hego Euskal Herriko marko autonomiko berri-
ra eramango gaituen ibilbidea euskal herritarron eskubidea bermaturik egin
behar da, erabakitzeko eskubidearen formulazio maltzurrik gabe.

174. Egungo markoen itxuraldaketari begira egiten diren erreferentziak, eraba-
kitzeko eskubidea ondorio juridiko eta politikorik gabeko galdeketa hutsean
kokatzen ari dira. Erabakitzeko eskubidea juridiko-politikoki ezertara behartzen
ez duen kontsultarako eskubide huts moduan planteatzea indarrean dauden mar-
koak itxuraldatzeko oinarria da, eredu konstituzionalari segida emango dioten
erreforma estatutarioak burutu ahal izateko. Hau da, kontsulta eskubidea saltzen
da euskal subjektu politikoa aitortzen duen erabakitzeko eskubidearen alternati-
ba moduan.

175. Eskubidedun subjektuak izateak eta parte hartze sozialean oinarritutako era-
bakitzeko ereduak ematen digute gure Herriaren etorkizunaz erabakitzeko auke-
ra eta, beraz, parte hartze soziala bermatu behar da, erabakitzeko eskubidea
burutuko dela bermatuko bada.

176. Parte hartze sozialerako bitartekoak finkatzeak, besteak beste, eredu patriar-
kalaren ondorioz emakumeon parte hartzea oztopatzen duten elementuak gain-
ditzea eskatzen du, eta horretarako bitarteko berezituak behar dira.

177. Kolektibo anitz dira eztabaida eta bizitza publikoan parte hartzeko zailtasun
bereziak dituztenak. Oro har, aukera berdintasuna da bultzatu beharrekoa, eta
kasuan kasuko neurri espezifikoak artikulatu guztion mesedetan.

3.1.4. Marko demokratikoa eta langile klasea

178. Euskal langileak behar eta aldarrikatzen dituen sakoneko aldaketak beste-
lako oinarri politiko, ekonomiko eta sozialen arabera eraikitako etorkizuneko
Euskal Herrian gauzatu ahal izango dira. Bertan kokatzen dugu euskal langileok
marko juridiko eta politiko berriaz eskuragai daukagun aukera, gaur egun buru-
tu ezinak diren proiektuetan aurrera egitea posible egingo duena, alegia.

179. Erabaki ekonomiko eta sozialak Madril eta Parisen eskutan utziko dituen
marko juridiko eta politikoa berriro finkatzeak euskal langileoi gaur arteko inpo-
sizioen pean jarraitzera kondenatuko gaitu. Orain arte bezala, Euskal Herri-
tik kanpo hartuko dira guri dagozkigun erabakiak, bertoko erakunde eta eragileak
bazterturik.

180. Marko demokratikoak gai ekonomiko, laboral eta sozialetan bertan erabaki-
tzeko ahalmena aitortu behar du; eta eskubide hori bermatu behar du, eragile
ekonomikoen, sindikatuen eta euskal erakundeen kontratuzko ahalmena errespe-
taturik eta behar diren bitartekoak artikulaturik. Era berean, marko berriak egitu-
ra ekonomiko eta sozial propioak eraikitzeko aukerari bide eman behar dio.

181. Ipar Euskal Herrian instituzio sozio-ekonomikoak artikulatzeko aldarrikape-
nak indarra hartzen du lurralde honen aitortpen ezak dakartzak ondorio larriak
direla eta. Premia sozio-ekonomikoak aztertuko dituzten zein horien inguruan
erabakiko duten instituzioak aldarrikatzen ditugu; izan ere, argi dago Pariseko
erabakien menpe jarraitzeak ez duela ekarriko inolako jauzi kualitatiborik
Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako langileen berezko premiak kontuan hartze-
ko orduan.

3.1.5. Marko demokratikoaren aldeko borroka datozen lau urteetan

182. Datozen lau urteak marko demokratikoaren aldeko borroka indartzeko urteak izango dira. Euskal sindikalismoak aldaketa demokratikoari begira indarrak batzeko aukera daukagu eta LABek aldaketa politiko eta sozialerako borrokaren erreferentia izaten jarraitu behar du. Langileria borroka honetara erakartzeko kapazak izan behar gara eta, gure Herriak bizi duen fase honetan, sindikalismo abertzaleak ekarpen handiagoak egingo dituen testuinguru sindikal berriak sortzeko gaitasuna izan behar dugu.

183. Lantokiak benetako aldaketa politikoa sustatzeko guneak bilakatu behar ditugu langilerian badagoen marko demokratikoaren aldeotasuna adierazteko ekimenak burutuz.

184. Egungo marko juridikoak eskaintzen ez dizkigun aukerak eta bortxatzen dizkigun eskubideak salatu ditugu hainbatetan; bere momentuan Lan Harreman eta Babes Sozialerako Euskal Esparruaren aldeko aldarrikapenak marko honen agorpena adieraztera eramán gintuen. Hortaz, marko berri batek aldarrikapen honi erantzun behar dio eta hainbat eta hainbat ondorio kaltegarri ekarri dizkigun inposaketa sozio-laboral ziklo luze hau gainditzea bideratu behar du.

185. Langileak aldaketaren protagonista bihurtu eta aldaketa politikoak geure aldarrikapenei benetan erantzun diezaiela lan egin behar dugu. Sindikatuok aldaketaren edukietan eragiteko gaitasuna daukagu, klase aldarrikapenetan aurrera egin ahal dugu, langileak baitira indar korrelazio sozial zein instituzional berriak bultzatu litzakeen aldaketa politiko horren onuradun nagusiak.

186. Aldaketa politikoak langileria aldarrikapenak jaso behar ditu eta iruzur berri batek izango dituen ondorio ekonomiko, laboral eta sozialak salatu behar ditugu. Eta, batez ere, Euskal Esparru Sozio-ekonomikoaren eraikuntzan urrats berriak emanez indartuko ditugu benetako aldaketa politikoren oinarriak.

187. Fase honetan garrantzi berezia izango du gure nazio izaera indartzeak; lurralde bakoitzeko berezitasunak jaso, aintzat hartu eta garatzen dituen nazio estrategia artikulatzeak.

188. Esparru propioaren aldeko borroka hainbat jarduera ildok osatzen dute. Alde batetik, esparru hori eraikitzeke beharrezkoak diren bitartekoak errebendikatzen ditugu; bestetik, esparru hori bestelako eredu ekonomiko eta sozial baten arabera eraikitzea bideratuko duten politikak ere aldarrikatzen ditugu. Borroka honen erreferentzia zutabeak honako hauek izango dira:

- Lan Harreman eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua
- Nazioa egituratzeko lurralde antolaketa
- Nazio eraikuntzari begirako sektore publikoa
- Kohesio soziala eta nazio eraikuntza
- Emakume eta gizonezkoen arteko aukera eta eskubideen berdintasuna
- Hizkuntza normalkuntza
- Nazio mailako egitura sozio-ekonomikoak garatzea
- Nazio mailako politikak garatzea (mugaz gaindiko politikak).

189. Ezinbestekoa dugu Ipar Euskal Herrirako oinarritzko erakunde ekonomiko eta sozialak zeintzuk diren definitzea, gerora errealitate horri erantzungo eta EESEa eraikitzen lagunduko duten erabakiak hartu ahal izateko. Datozen urteetarako helburuetako bat Ipar Euskal Herrian indarrak batzen eta "berton erabaki" aldarrikapenaren inguruan borrokak aktibatzen eta garatzen jarraitzea izango da.

190. Fase politiko honetan Euskal Esparru Sozio-ekonomikoa eraikitzeke urrats erabakigarriak egitea da gure helburua. Euskal langileen aldarrikapenak eskuragarri egingo dituen jauzia izanik, lan erreferentzia nagusia izan behar du sindikalismo abertzalearentzat.

3.1.6. Errepresioa

191. Estatuak beren errepresio estrategia areagotu dute, aldaketa politikoaren norabidea hipotekatzeko helburuaz. Ereku independentistaren kontrako errepresio mugagabeak zerari erantzuten dio, alde batetik gertu dagoen aldaketa politikoari begira interbentzio gaitasuna neutralizatzeko premiari eta, beste batetik, Euskal Herrian hasi behar den ziklo berriaren benetako aukera politiko moduan neutralizatzeari.

192. Eskubide zibil eta politikoaren urraketa sistematikoak Euskal Herriko bizitza politiko eta soziala guztiz baldintzatzen du eta, adierazpen eta itxurakeriekin izan ezik, ez zaio behar bezalako erantzunik ematen gure herriaren bilakaera politikoan injerentzia politika hau neutralizatzeko.

193. Badakigu langileria injustizia hauen jakitun dela, presio bidetzat erabilia den preso kolektiboaren errealtatearen aurrean ezikusiarrena egiten ez duela... aukera anitz daude lantokietatik erantzun eragingarri eta progresiboa artikulatzeko, "aski da" oihua zabal dadin. Aldarrikapen hau gero eta hedatuago dago jendar-tean, zeren eta konfrontazio fase hau gainditzeko eta gure eskubideen errespetuan oinarritzen den ziklo politiko behingoz hasteko premiaren aurretik interes politiko zehatzak jartzen direla nekatuta baitago jendarte hori.

194. LABek errepresioari eta honen ondorioei erantzuten jarraituko du, eskema antierrepresibo hutsak gainditurik eta gure erantzunik eragingarriena Euskal Herriaren eskubideen defentsan aurrera egitea izanik.

3.2. Euskal Estatu Sozialistari begira

195. Marko demokratikoa finkatzea proiektu politikoaren lehiari nagusitu behar zaio; baina noski, proiektu politiko guztiak aukera berdintasunean garatu ahal izateari bide eman behar dio. Hori da, hain zuzen ere, gure etorkizuna inolako mugarik gabe erabakitzeko eta eraikitzeko aukerei ateak itxi nahi izatearen arrazoi nagusia.

196. Bestelako Euskal Herria eraikitzeko proiektuak independentzia eta sozialismoa aldarrikatzen dituen proiektuaren erreferentzia izan du beti LABentzat; Euskal Estatu Sozialistaren sorreran zehazten den proiektua hain zuzen ere.

197. Langileok Euskal Estatu Sozialista eraikitzeko aukera izan behar dugu. Hau da aldarrikatzen duguna marko demokratikoak proiektu guztiak aukera berdintasunean defendatzea eta gauzatzea bermatu behar duela esaten dugunean.

198. Euskal Estatu Sozialista ez da egun batetik bestera eraikiko eta ez da gertaera politiko zehatz baten ondorioa izango. Euskal Herriaren oraina eta etorkizuna norabide horretan kokatuko duen erabaki politiko eta sozialak hartzetik etorriko da.

199. Trantsizioaren fasea irekiko duen marko demokratikoa demokrazia formala gainditu eta demokrazia errealean oinarritu behar da. Honekin batera, trantsizioak bi oinarri nagusi izan behar ditu:

200. Lehenik eta behin, herritarren parte hartzearekin egin behar den ibilbidea

izan behar da. Euskal Herriko gizon eta emakumeok gure Herriari dagozkion erabakietan hartu behar dugu parte eredu ekonomiko eta soziala aldatzeko. Zentzu honetan, sindikalismoaren eta herri eragileen papera funtsezkoa izango da.

201. Bigarrenik, euskal sozialismoaren oinarriak dinamikoki aztertu eta finkatu behar dituen ibilbidea izanda, ezinbestekoa da proiektuaren lanketa ideologiko iraunkorra egitea. Bertoko eredu ekonomiko eta sozialaren oinarriak finkatzen joan behar gara: identitarioa, balio feministak jasotzen dituen, jendartearen bilakaera kontuan hartzen duena... eta urratsez urrats garatu.

202. Etorkizuneko Euskal Herria gaurtik eraikitzen ari garela esaten dugu eta horrelaxe da. Euskal Herria gorrira ekartzea gure proiektu politikoaren lanketaz egingo dugu: bestelako eredu ekonomiko eta sozialaren oinarriak aztertu eta ideologikoki landu, parte hartze sozialerako bitartekoak sortu, Euskal Esparru Sozio-ekonomikoaren aldeko borrokan urrats berriak eman...

203. Bestelako Euskal Herria eraikiko badugu, argi dago urratsez urrats egingo dugula. Abiapuntua proiektu guztiak gauzagarriak egiteko aukerak edukitzea izan behar da; hortik aurrera, gaur egungo politiken norabidea aldatuko duten gehiengo politiko eta sozialak artikulatzeko eta garatzeko dugun gaitasuna izango da gako.

204. Euskal Herrian eremu independentista eta progresista artikulatzeko aukera eta potentzialtasuna gauzagarria da; izan ere, euskal burgesiek eta egungo markoetan negozioa bermaturik daukaten esparru politikoek aldaketari hainbesteko beldurra izatearen arrazoia bera da. Aldaketa jokoan dagoen fase politiko honetan, gure proiektuaren aldarrikapena eta garapena dimentsionatu behar dugun aktibo politikoa da.

3.2.1. Langileriaren protagonismoa

205. Indar korrelazioak langileriaren jarrera eta sakoneko aldaketak lortzeko benetako gaitasuna baldintzatzen duten koiuntura zehaztatetik haratago doa langileriaren aldaketarako subjektu izaera.

206. Alternatiba politiko eta sindikalari forma ematen eta bere alde lan egiten jarraitu behar dugu; baina badakigu gaur egun klase sindikatuen erronkarik handiena langileriaren borroka gaitasuna indartzea dela. Hauxe da sindikatuaren barne eztabaidan zein lan ildoan gailendu behar den lehentasuna.

207. Eredu politiko, ekonomiko eta sozial osoa dago (eredua garatzeko bitartekoak zein ereduaren araberaren diren politikak) kapitalaren interesen garapenari begira eta, hortaz, patronalaren eta administrazioen arteko aliantzak zuzentzen ditu instituzioetatik hartzen diren erabakiak.

208. Neoliberalismoa aldebakarreko eredu da. Alde batek, kapitalak hain zuzen ere, hartzen ditu erabakiak; eta beste aldeak, langileriak, nekez lortzen du erabaki horietan eragitea. Hauxe da aldatu behar duguna langileriaren protagonismoa bultzatu behar duguna esaten dugunean.

209. Langileek eta langileon aldarrikapenek garrantzi handiagoa hartu behar dute jendartearen, eztabaida politiko eta sozialaren erdian kokatu behar ditugu. Aldarrikapen horiekin bat egiten duen gehiengo soziala egonda, gehiengoaren ahotsa nagusitzea lortu behar dugu gutxi batzuen eskutan dauden botere guneetako erabakietan eragin dezagun. Azken batez, sindikalismoak ideologikoki eta mobilizazio sozialean kontrabotere estrategia eragingarria garatu behar du eta langileei erabakietan parte hartzeko bideak eskaintzeko gaitasuna izan behar du.

210. Klase subjektuaren atomizazio eta korporatibismo errebindikatiboen hazkunde aurrean, klase sindikalismoak subjektu horren kolektibo izaera indartu behar du. Langileriaren indarra bere batasunean datza eta klase identitatea indartzen eta subjektua berrosatzen duten elementuean aurrera egi-

tea izan behar da gure lehentasuna. Langileriaren zatiketa interesatuari erantzuten dion estrategia erreala artikulatzeko gai izan behar gara.

3.3. Aldaketa sozialak eraginez, aldaketa politikoa bultzatu

211. Langile klasearen errealitateak hurrengo urteetako interbentzioari anbizio handiz ekitera behartzen gaitu. Aldaketa sozialak bultzatzeko premia begi bistakoa da eta gure ahalmen osoa hauek lortzera bideratuko ez bagenu, horrek langileen benetako beharretatik urrunduko gintuzke.

212. Era berean, gure borroka sozialaz erabaki politikoetan eragiteko aukera azpimarratu nahi dugu. Langile klasearen aldarrikapen gehienek sakoneko aldaketa politikoak sustatzea eskatzen dute, baldin eta instituzioen aldetik konponbideak bilatzeko benetako borondaterik badago. Horixe da modua LABek egungo koiunturan aldaketa politiko eta sozialerako eragile moduan daukan potentzial osoa garatzeko.

213. Lortu nahi dugun ereduak aberastasunaren banaketa, eraginkortasun soziala, garapen ekonomiko orekatua, ingurumenaren defentsa eta baliabide naturalak zainduko ditu. Parekidetasuna hasieratik finkatutako helburua da eredu berri honetarako; beraz, emakumeen diskriminazioa gainditzeko eta benetako aukera berdintasuna bermatzeko bitartekoekin eraiki behar den eredia da.

214. Aberastasuna sortzeko eredia auzitan jarri behar dugu, langileon eta natur baliabideen neurri gabeko esplotazioan oinarritzen delako, gure etorkizuna goitik behera baldintzatzen duelako, batzutan kalteek atzera bueltarik ez dutelarik.

215. Euskal Herrian aberastasun nahikoa sortzen da bertoko herritarron bizi baldintza duinak bermatzeko. Aberastasunaren sortzaile garen langileon eskubideen berma oinarri izango duen estrategia sindikal sendoa eraikitzea izango da gure erreferentzia datozen urteetan.

216. Estrategia horren oinarrian kokatu behar dugu sektore publikoak eduki beharreko pisua eta garrantzia eskuratzea. Merkatuaren hedapen hutsa helburu duten privatizazio politikei aurre egitea, besteak beste, klabea da interbentzio publikorako esparruak berreskuratzen joateko, gaur egun duen izaera subsidarioaren kontra.

217. Eskubide sozialen aldarrikapenak, eta are gehiago hauek bermatzen direla ziurtatzeak, aberastasunaren kudeaketan du klabe nagusi bat. Egungo eredu fiskala aldatzea, gastu sozialerako aurrekontuen berrikuspen sakona, enplegu duinerako bitartekoak eskuratzea,... borroka horren barruan kokatzen ditugu, eratu nahi dugun eredu alternatibo horren barruan, etorkizun politiko berri batek posible egin behar duena Euskal Esparru Sozio-ekonomikoaren bidez.

218. LABek plazaratutako programa sozio-ekonomikoak zuzentzen du sindikatua-
ren Euskal Esparru Sozio-ekonomikoaren aldeko borroka; proposamena integra-
la da, bere osotasunean landu behar duguna. Hala ere, horren barruan errefe-
rentziazkoak diren hainbat borroka azpimarratu behar ditugu, fase honetan duten
garrantziagatik:

3.3.1. Euskal sektore publikoaren eraikuntza

219. Bultzatu nahi dugun burujabetza prozesuak jaso behar duen helburu garrantzitsuetako bat geure premia, ahalmen eta baliabideen arabera euskal sektore publiko berria eraikitzea izango da.

220. Gaur egun, sektore publikoaren antolamendu eta kudeaketak Estatuentzat zilegitasun politikorako balio intrintsekoa du, botere ekonomikoaren interes faktikoak finkatzeko erabiltzen dutena. Horrez gain, neoliberalismoak zuzentzen du sektore honetan burutu behar den interbentzio publikoaren norabidea; alde batetik, interes pribatuak, alderdienak eta indibidualak, hiritargoaren interes orokorren gainetik lehenesten ditu; eta, bestetik, politika publikoei eta zerbitzu publikoak artatzeko ereduari kapitalaren interesen arabera orientabidea ematen die.

221. Horrexegatik, euskal sektore publiko berri horren eraikuntzak, sektorea bera osatzen eta baldintzatzen duten aspektu guztiak bere egingo dituen ofentsiba integrala eskatzen du, publikotasunaren aldarrikapenera mugatu gabe.

222. Ofentsiba horren barruan, herritarren eskubide sozialak benetan bermatuko dituzten eta aberastasunaren banaketarako bitarteko eragingarriak izango diren zerbitzu publikoen aldeko apustua indartu behar dugu. Zerbitzu publiko horien oinarriak unibertsaltasuna, berdintasuna, kalitatea eta eraginkortasun sozialak dira. Marko ideologiko honen barruan, pribatizazioen kontrako borroka kokatu behar dugu; pribatizazio horien bidez gure eskubideen bermeak eta berauen gauzapenerako ezinbestekoak diren baliabide ekonomikoak administrazio publikoetatik kanpo utzi nahi baitituzte.

223. Ipar Euskal herrian borroka honek dimentsio handiagoa hartuko du, Sarkozyren politika sektore publikoa birmoldatzean oinarritzen baita. Irtenbidea euskal sektore publikoaren defentsan kokatu behar dugu. Hortxe dago jauzia, Estatuko sektore publikoa defendatzea honen ikuspegi jakobinoa gainditurik.

224. Euskal sektore publiko berri horren aldeko borrokan kontuan hartu beharreko beste zutabe bat Euskal Herriko lurralde egituraketa eta egituraketa soziala helburu dituen ekimenen garapena da. Horretarako beharrezkoak dira lurralde plangintzak, lurraldeen arteko zerbitzuak ematea eta Estatuak inposatu diguten zatiketa gaindituko duten politiken garapena.

225. Egungo eskumen marko desberdinek euskal sektore publikoaren garapenerako aukerak erabat baldintzatzen dituzte. Euskal Herrirako nahi dugun burujabetza ekonomikoari begira eta aldaketa politiko eta sozialari begira, erabakitze ahalmeneren aldarrikapena iraunkorra izan behar da: ahalmena politika publikoak, administrazio eta zerbitzuen ereduak, lurralde antolaketa, zerbitzu publikoen plangintza eta kudeaketa erabakitzeak.

226. Euskal sektore publiko berri horren eraikuntzan parte hartze eta ekimen sozialak funtsezkoak dira. Gure helburuetariko bat izango da langileek parte har dezatela bultzatuko duen kogestio eredu propioaren sorrera eta lan harremanen eredu eraginkorraren garapena.

227. Euskal Herriak behar duen sektore publikoa zehazteko asmotan, aipaturiko aspektuak eta beste batzuk sakondu behar dituen azterketa ideologikoari ekin behar diogu sindikatuan.

3.3.2. Enplegu duinerako eskubidea

228. Lan eskubidearen errekonozimenduak, sistema kapitalistaren barruan, ez du enplegu duinerako eskubidea bermatu. Are gehiago, enplegua edukitzeko eta enplegua duina izateko lortu ziren aurrerapauso guztiak banan-banan zapuzten ari da eredu neoliberalak.

229. Enplegu duin baterako eskubidea funtsezko eskubidea da langileontzat, lan baldintza egokiek bizi proiektua aurrera ateratzea bermatzen baitute; besteak beste, enplegutik eratortzen direlako funtsezkoak diren eskubide sozialen gauzatze erreala.

230. Enplegu duin baterako eskubidea bermatzea eraldaketa sozialerako faktorea da, kalitateko enpleguak lan baldintzak ez ezik, bizi baldintzak ere ziurtatu behar dituelako, integrazioa eta parte hartze sozialerako aukerak barne.

231. Kalitateko enpleguaren aldeko borrokak zuzenduko du, beraz, enplegu duinerako eskubidea defendatzeko gure estrategia. Instituzioei eta patronal publiko zein pribatuari zuzendutako aldarrikapena izango da; borroka hau lan munduan lehenatasuneko bilakatzeaz gain, bizi baldintzen okertzeari aurre egingo dion mobilizazio sozialerako erreferentzia izango da datozen urteetan.

232. Prekarietatearen hedapenari harresiak jarri behar dizkiogu langileen bizi baldintzak hobetzeko eta bazterketa sozialari aurre egiteko. Lan baldintzen degradazioari aurre egiteaz gain, hainbatetan lanbidea bera prekarioa dela kontuan hartzen badugu, borroka hau indartu beharra dugula argi dago.

3.3.3. Eskubide sozialak

233. Bizimodu duinerako eskubidea bermatzea ekimen politikoaren oinarri izan behar da eredu ekonomiko eta sozialaren garapenean.

234. Euskal Herri osoan eskubide sozialak bermatuko dituzten prestazioen eta zerbitzu publikoen alde borrokatu behar dugu. Borroka honetan aurrera egiteak jendartearen bizi kalitatea hobetuko du, baina, honetaz gain, aldaketa politikoa sustatuko dituen borroka soziala ere bada, zeren eta, izatez, horrela babes sozialerako sistema propioa eraikitzeko oinarriak ezarriko baititugu.

235. Eskubide sozialen artean, hezkuntza, osasuna, etxebizitza, zaintza eta zain-tzaile ez izateko eskubidea, eta soldata soziala izango dira geure aldarrikapen nagusiak. Borroka hau lan zentroetan zein jendartearen burutu beharko dugu eta, nagusiki, egungo instituzio neoliberelei zuzendu beharko diegu. Gure helburua eskubide sozialen defentsa langileriantzat borroka erreferentzia bihurtzea da, horregatik, gure lehenatasunetako bat aldarrikapen hauen inguruan eremuak irabazten joatea ahalbideratuko digun estrategia sindikal sendoa eraikitzea izango da.

3.3.4. Emakume eta gizonezkoen aukera eta eskubide berdintasuna

236. Instituzio kapitalistak ondo baino hobeto erabiltzen ari dira asimilazio estrategia. Aldaketa progresista eta justuen inguruko mezu kontrolatuak beren gain hartu eta zabaltzen dituzte, baina beren helburua egungo sistemaren funtsezko klabeak aldatu ez daitezela bermatzea da. Ildo honetatik, adierazgarria da berdintasunaren inguruko adierazpen eta politikak areagotu izana, baina gaurko egunean oraindik ez dago emakumeen zapalkuntza egoera benetan gaindituko duen politika instituzionalik. Aspalditik salatu izan dugunez, inolako gauzapez errealik ez duten aldarrikapen formal hutsak dira.

237. Ideologia kapitalista patriarkalean oinarriturik, lan harremanak pertsona guztien bizi beharrak betetzea kontuan hartu gabe eraiki dira. Lan erreproduktibo eta zainketa zein lan horiek betetzen dituzten emakumeak diskriminatzen dituen ereduari aurre egin behar diogu eta, honekin batera, premia horiek bere gain hartzen dituen eredu berri bat eraiki behar dugu.

238. Emakume langileen lan baldintzak hobetzeko eta diskriminazioekin amaitzeko aurrerapauso berriak zehaztu behar ditugu geure ekintza sindikalean. Gure

erronka hauxe da: lanaren arabera mundua (pertsonek) banatzen duen sexu-genero sistema baliogabetzea. "Lan" hitzak gaur egun berarekin batera dakarren dikotomiatik premia pertsonalak eta etxetik kanpoko lana integratzen dituen alternatiba orokorrera pasatu behar gara.

3.3.5. Euskara

239. Ezinbestean eraiki nahi dugun Euskal Herria euskalduna da; herritar eleanitzez osatutako herri elebakarra. Eredu euskaldun eta nazionalaz eraikitako Herria. Egun bizi dugun egoera, mendeetako eredu zapaltzailearen ondorioa da. Horri aurre egiteko, gaurdanik ekin behar diogu, nor bere egoeratik baina guztiok helburu berberekin eta plangintza baten baitan.

240. Langileok euskaraz lan egiteko eskubidea urratua eta ukatua dugu. Lan harremanak hizkuntza batean edo bestean garatzea ez da auzi neutroa, ez eta edonolako kontua ere. Euskal Herrian lan egiteko baldintzen aldeko borrokaren baitan kokatu behar dugu euskaraz lan egiteko eskubidea bermatua izatea. Hau ezin da patronalaren edo administrazioen borondateari lotua egon.

241. Lan mundua euskalduntzeko aitzindaria izan eta izango da LAB. Euskal Esparru Sozio-ekonomikoa euskararen normalkuntza prozesua garatuz eraiki behar dugu. Egungo menpeko egoera gainditu eta berreuskalduntzea helburu izango duen politika nazionala bultzatu behar dugu.

3.4. Borrokak antolatzeko irizpide orokorrak

242. Gure proposamenak eta borrokak Euskal Herri osoari begirakoak izan behar dira abiapuntutik, baina beti ere estrategia zehatzak eraikiko ditugu errealitate desberdinetatik abiatzen garela kontuan harturik. Borroken nazio izaerak, hain zuzen ere, ikuspegi orokorraren barruan tokian tokiko egoerak aintzat hartzea eta beharrezkoak diren egokitzapenak egitea eskatzen du. Lurraldetasunaren aferak duen dimentsioa, aldagai soziologikoak eta dauzkagun indar korrelazioak kontuan hartuko dituen ibilbide nazionala egin behar dugu.

243. Gure proposamen eta estrategiak langile guztiei zuzendutakoak izan behar dira. Horrela bada, jendartearen erdia osatzen duten emakumeak ahaztu gabe jorratu behar ditugu. Mendeetako ikuspegi patriarkala gainditzeak hartzen ditugun erabakien genero eragina aztertzea eskatzen du, eta egin-kizun hau jaso eta sistematizatu behar dugu geure interbentzioa definitzerakoan.

244. Neoliberalismoaren kontrako borroka mundu osoan zehar egiten den borroka da. Mundu mailako aldaketak sustatzeko helburuaz burutzen diren eta nazioarteko dimentsioa daukaten Herrietako borrokak dira. Nazioartean lan eginez indartuko ditugu geure borrokak; Herrien arteko elkartasunak eta klase sindikatuen arteko lankidetzak emango dizkigun indarrekin, hain zuzen ere.

4. Aldaketa sozialak eragin- go dituen ekintza sindikala

245. Ekintza sindikala aldaketa sozialerako tresna izan behar da. Datozen urteetako erreferentzia eta aldarrikapen nagusiak finkatzea bezain garrantzitsua izango da aldaketa bultzatzeko gai izango den eredu sindikalean ongi asmatzea.

246. Gure ekintza sindikalaren ezaugarriak ondo definituak ditugu. Gure interbentzioaren izaerak definitzen ditu, alegia: sozio-politiko eta inposatzen diguten eredu ekonomiko eta sozio-laboralaren aurkako konfrontaziokoa.

247. Klase gatazkaren egungo egoerak, 6. Biltzar Nagusian definitu genuen gure ereduaren aldeko apustua berrestea ez ezik, gure eguneroko praxia indartzea ere eskatzen du. LABen ekintza sindikalak langileriaren borrokarako gaitasuna eta erreferentzia indartu eta areagotu behar ditu.

248. Horrela bada, patronal eta administrazioei boterea borrokatzeko langileak batzen dituen ekintza sindikala izan behar da, PNV zein UPNren administrazioen eta patronalaren artean osatutako aliantzari aurre egingo dion ekintza sindikala.

4.1. Klase subjektua berrosatzeko ekintza sindikala

249. Egungo zatiketari aurre egiteko langileria banatzen duten faktoreen kontra egin eta bat egiten laguntzen dutenak indartu behar ditugu. Oso begi bistakoa den hau egiteko zailtasunak nabarmenak dira, dena dela.

250. Patriarkatua eta prekarietatea izanik zatiketarako elementu nagusiak, biak kapitalismoaren berezko elementuak dira; egungo egoeraren ezaugarri estrukturalak dira eta ez dago bata zein bestea konpontzerik neoliberalismoari bere osotasunean aurre egin gabe.

251. Klase subjektua berrosatzea borroka bat da bere horretan, urteak dira LABen horrela ulertzen dugula. 6. Biltzar Nagusian egin hausnarketak eta hartutako erabakiek langileriaren zatiketa gainditzeko bitarteko estrategikoak sortzera eraman gintuen; aukera berdintasunerako plan estrategikoa da adibide esanguratsua. Bide honetan, definituta daukagun estrategian, sakondu behar dugu, langile subjektuaren bilakaera etengabe aztertuz.

252. Aldarrikapenak edota antolatzeko guneak korporatibizatzek, kolektibo zehatzen egoera aintzat hartu gabe edo bigarren mailan utziz jarduteak edota bakoitzak bereari aurre egiten badio guztiak aurrera egingo dugula pentsatzeak zatiketa elikatu egiten dute.

253. Era berean, berebiziko garrantzia du egungo lan harremanen indibidualizazioari aurre egitea. Zatiketak ahultzen bagaitu, patronalarekin buruz buru aritzeak indargabetu egiten gaitu. Horixe da, hain zuzen ere, lan merkatuaren desregulazioaren ondorio kaltegarriena klase ikuspegiz aztertzen badugu.

254. Ekintza sindikala indibidualismoari aurre egiteko bidea da, ariketa kolektiboa delako, sindikalismoa langileen arazoei modu kolektiboan aurre egitea delako berez. Horixe da egoerari aurre egiteko oinarritzko gakoa. Ekintza sindikalaren bitarteko nagusia den negoziazio kolektiboa indartzea da desregularizazioari aurre egiteko dugun bitarteko nagusia gaur egun.

255. Pentsionistena ere kontuan hartu beharreko egoera da. Kolektibo anitza eta zabala da eta bere baitan egoera ezberdinak badaude ere, hainbat behar dituzte (pentsio murrizak, zerbitzu sozio-komunitario aski ez...). Ohiko lan merkatutik kanpo gertatzeak ez du esan nahi langileek dituzten kezka eta beharrekin bat etortzen ez direnik eta, beraien egoera espezifikoei erantzuna emateaz gain, langileen eskubideen defentsarako borrokan aktibatu behar ditugu, asko dutelako jendartean aportatzeko.

4.2. Lantokietako errealitatea eraldatuko duen ekintza sindikala

256. Patronalaren nagusitasuna mugatuz egun duen boterea borrokatzea da gure ekintza sindikalaren helburua. Datozen urteetan aberastasunaren banaketaren estrategia orokorra gure jarduera sindikalaren erreferentzia izango da.

257. Langileen lanari esker sortutako aberastasuna enpresarien mozkinak areagotzera bideratzen da eta ez enpleguaren sorrerara edo enpleguaren kalitatearen hobekuntzara ez eta soldatetara ere. Horixe da, hain zuzen ere, borrokatu behar dugun egoera.

258. Enplegu duinerako eskubidearen aldeko proposamen integrala eskutan dugula indartu behar dugu kalitateko enpleguaren aldeko borroka lantokietan.

4.2.1. Enpresa buruei boterea borrokatzeko esparruak

259. Soldata politika eta lan baldintzak dira patronal publiko zein pribatuari boterea borrokatzeko sindikalismoaren betidaniko esparruak. Hiru faktore hauen bilakaeraren arabera egiten dugu aurrera edo atzera aberastasunaren banaketan eta kapital-lanaren arteko indar korrelazioan.

260. Faktore hauetan oinarritutako borrokaren barruan, kolektibo zehatzen egoera espezifikoa hartu behar da kontuan. LABek duela zenbait urte jadanik esan zuen hiru eremu hauetan garatu beharreko estrategia sindikala motz eta baztertzaila dela, ez badira kontuan hartzen hainbat kolektibo zehatzen egoera espezifikoa; izan ere, hiru borroka hauen moldeak ez zion langile guztien errealitateari oro har erantzuten, ez zituen aintzat hartzen emakumeak subjektu moduan eta, hortaz, emakume langileen premiei ez zien erantzuten. Honela, borroka orokorrari hainbat kolektibo zehatzen inguruko ikuspuntu espezifikoa gehitu genion eta aukera berdintasunaren aldeko borroka ildo artikulatzeari ekin genion.

261. Funtsezko elementu hauetan oinarritu dira eta oinarritu behar dira aurrerantzean ere LABen aldarrikapen nagusiak lan munduan. Eta, esan dugunez, langileen aldarrikapenak diren hauetara bideratu behar da enpresetan sortzen den aberastasunaren zati handi bat, langileoi dagokigun eta egun enpresariak bereganatzen duen zatia, hain justu ere.

262. Aldarrikapen hauek gure ekintza sindikalean kokatzeko garaian kontuan hartu behar dugu tokian tokiko errealitatearen arabera eta faktore bakoitzaren bilakaerari begira zehaztu behar ditugula.

263. Baina, batez ere, gure ekintza sindikala aldarrikapen hauek bere osotasunean harturik definitzen dugula bermatu behar dugu. Aldarrikapenak norberak ematen dion garrantziaren arabera sailkatzen baditugu eta gure ekintza sindikala norberak lortu dezakeenaren arabera burutzen badugu, egunero-kotasunak eta inertziak hasieran aipatu dugun ekintza sindikal murrizta egitera eramango gaitu.

4.2.2. Aldarrikapenak eguneratuz

264. Aldarrikapen bakoitzari begirako jarrera, testuinguruaren eta langile kolektibo bakoitzaren egoera espezifikoa arabera finkatu behar dugu. Horrela bada, datozen urteetan honako puntu hauei eman behar diegu garrantzi berezia:

265. **Soldatak:** lan errenten pisuaren galera kontuan hartu behar dugu. Hitzarmen kolektiboetan lortzen ditugun soldata igoerak hortxe dauzkagun arren, lan errenten pisua gero eta murriztagoa da. Beraz, soldatetako eros ahalmena KPIaren gainetik hobetzea aldarrikatu behar dugu.

266. Kategoria edo kolektibo ezberdinen arteko soldata desberdintasunak murrizteko helburua izan behar dugu eta soldata eskala bikoitz edo bestelako praktika diskriminatzaileen aurkako jarrera azaldu behar dugu.

267. Egoera honen atzean zerbitzu sektoreko soldatak daude batez ere; geroz eta langile gehiagok egiten dute lan sektore hauetan eta bertan dira soldatarik kaxkarrenak. Kontuan izanik sektore honetan lan egiten dutenen %70 emakumeak direla, borroka honek ezinbestez hartu beharko du emakumeen egoera aintzakotzat.

268. Geroz eta gehiago dira lanaldi osoko kontratua duten langileak eta pobrezia mugaren azpitik kobratzen dutenak. Lanbide arteko gutxieneko soldata finantzatzeko ahalmenik ez badugu ere, hitzarmenetan horrelako egoerarik ezin ditugu onartu.

269. **Lan baldintzen** aldeko borrokan prekarietatearen oinarrian dauden aldi baterakotasunari eta azpikontratazioari mugak jarri behar zaizkio. Behin behinekotasuna mugatzeko neurriak eta batez ere, iruzurrezkoak diren aldi baterako kontratuen aurkako borroka indartu behar dugu.

270. Azpikontratazioen kasuan, enpresa nagusiaren lan iraukorrak egiteko azpikontraten erabilera debekatzea eskatu eta azpikontratazioaren bidez beteko ez diren jarduerak zehaztu behar ditugu; azpikontratetako lan baldintzak hobetzeko borroka egitearekin batera, noski.

271. Administrazio publikoetan zerbitzu gehiago pribatizatzearen aurka azaldu behar gara. Pribatizatuta dauden zerbitzuak berriro ere publiko bilaka daitezten aldarrikatu behar dugu eta pribatizatuta dauden langileen lan baldintzak hobetu.

272. Lekualdatzearen mehatxu eta txantajeari ere aurre egin beharko diogu, lan baldintzak kaskartzeko eta langileriaren aurka jotzeko tresna bilakatu baita. Enpresen lekualdaketa estrukturala legeria neoliberalaren ondorio naturala da. Efizientzia eta kompetentziaren izenean merkatuak agintzen du ekoizpen prozesu batzuk non eta nola egin behar diren. Hala ere, lan harremanetan lekualdatzearen mehatxua zabaltzen duten enpresa gehienak, multinazionalak, honezkero lekualdatuak daude, eta askotan mundu osoko sarea badaukate.

273. Orain arteko esperientziek esaten digute, kasu hauetan, langileen gainean irabazien inguruko erantzukizuna jartzea dela enpresen helburua. Haiek zenbat irabazi nahi duten esan eta langileek irabazi horiek "bermatzeko" lan baldintzetan atzera pausoak onartzea nahi dute. Enpresen kokapenaren eztabaida ez dago gure eskuetan, erabakia beraien estruktura orokorrak ematen dieten irakurketa

makroekonomiko iraunkorretan oinarrituta egongo da beti. Bitartean, lan harreman eredu erasokorrak garatzen doaz, mehatxua medio. Gure papera mehatxu hauei aurre egitea izango da langileen elkar-tasun eta borroka indarraren bitartez, benetako aberastasunaren banaketa lortzeko.

274. Enpresa hauen jarrera erasokorra azpikontratazioan ere oinarritzen da. Azpikontratako langileen-ganako betebeharririk ez dute baina askotan, enpresa nagusiak azpikontratako enpresari jartzen dizkion baldintzak direla eta, azken hauen lan baldintzak kaltetzen dira eta enpresa lekualdatzen denean ere alderik txarrean egokitzen zaie. Langileen banaketa honi ere aurre egin behar diogu.

275. ABLEen bidez egiten den kontratazioaren aurka azaltzen jarraitu behar dugu.

276. Lana antolatzeko moduak, lan erritmoek eta lan zamek edota malgutasuna bezalako elementuek ere eragin zuzena dute lan baldintzen kalitatean eta patronalak bere neurrira erabil ditzala ekidin behar dugu.

277. **Lan osasuna:** lan baldintzek eta lan osasunak harreman zuzena daukate, beraz, prekarietatearen aurka borrokatzea lan istripuen aurka eta lan osasun eskubidearen alde borrokatzea da. Urtero lan-postuan hiltzen diren langileen kopurua ikaragarria eta onartezina da; baina ezin dugu ahaztu ezkuta-tu ezin duten datu beltz honen atzean azalarazten ez diren bestelako istripuak eta lan gaixotasunak ere badaudela.

278. Kalean burutzen ditugun interpelazio eta salaketa dinamikekin jarraitu behar dugu eta, honekin batera, enpresetan burutu beharreko lana indartu, lan osasuna gure eguneroko ekintza sindikalean txertatu behar dugu.

279. Enpresetan etengabeko lana egin behar dugu enpresaburuek lan osasun eta segurtasunean inbertsioak egin eta prebentzio neurriak hartzea eskatzeko.

280. Azken urteetan, sistema kapitalistak osasun arloa pribatizatzeko daraman politika dela eta, mutua-litatei gero eta eskumen gehiago eman zaizkie. Sindikatuan mutualitate hauek sisteman publikoaren parte izan behar direla aldarrikatu behar dugu, osasuna kontrolatzeko sistema pribatu bihurtzen ari baitira.

281. **Lanaldia:** Lanaldia murriztea oraindik da oinarritzko erreferentzia, bai enplegua sortzeko, bai eta langileen bizi baldintzak hobetzeko ere. Era berean, bi kontu hauek aberastasunaren banaketan eragi-ten dute kapital-lan harremanetan.

282. Patronala, enpresa multinazionalen lidergoaz, jardunaldia murriztu izanaren ondorioak neutraliza-tzen ari da. Honetarako, lan denboran malgutasuna gehitu eta instalazioen erabilera areagotzen duten berrantolaketa sistemak erabiltzen ditu (lan ordutegiak). Ildo honetatik, lan jardunaldiaren murriztape-na malgutasunari lotua negoziatzea patronalak negoziazio kolektiboan etengabe planteatzen duen atala da.

283. Ekoizpen premietara egokitzeko helburu bakarra duten lan jardunaldia antolatzeko sistema era-sotzaile guztiak errefusatzeko ditugu, hala nola larunbat eta jai egunak erabiltzea, "non stop" sistemak, eta abar. Langileen bizi baldintzak hobetuko dituen lanaren berrantolaketa aldarrikatzen dugu.

284. LABek, beraz, uko egingo dio lan jardunaldia soldataren truke edota malgutasunean oinarritzen diren berrantolaketa sistemen truke negoziatzeari.

285. Aparteko orduen aurkako borrokan ere jarraitu behar dugu. Sarritan aparteko orduak soldata pre-karioen osagarri moduan erabiltzen dira, beraz, soldata prekarioen aurkako borroka berarekin bate-ra aparteko orduen desagertzea ekar dezake.

286. **Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna:** Emakume eta gizonezkoen lan merkaturatzeko aukerak, lan baldintzak, soldatak, promoziorako aukerak... ez dira berdinak. Emakumeek lan munduan sartzerakoan eta lan munduan bertan diskriminazioa pairatzen dute.

287. Formalki eta legearen arabera gizon eta emakumeak eskubide berdinen jabe badira ere, lan munduan, beste hainbat esparrutan bezala, berdintasun hori ez da errealia.

288. Lanaldi partzialeko kontratuen gehiengoa emakumezkoek betetzen dituzte. Gehienetan ez da borondatezkoa eta diskriminatzeko eta lan merkaturatzean emakumeen menpekotasuna egonkortzeko erabiltzen da. Borondatezkoak ez diren lanaldi partzialeko kontratuak lanaldi osoko bilaka daitezzen eskatu behar dugu.

289. **Hizkuntza normalkuntza:** Lan munduan euskararen normalkuntza sustatzeak bere lekua izan behar du ekintza sindikalean. LAB, lan munduan euskararen normalkuntzaren aldeko eragile erreferentzial eta eraginkorra izatera iritsi behar da.

290. Lan munduan euskararen erabilera bermatzera ez ezik, lehenestera ere zuzentzen diren neurriak bultzatuko ditugu. Langileen euskalduntze eta trebakuntzarako neurriak zehaztu behar dira. Enpresen konpromisoa ere jasotzea beharrezkoa da; besteak beste, euskararen normalkuntzarako planak inplementatzea izan behar dugu helburu eta modu progresiboan sustatzeko neurriak sartu lan hitzarmenetan.

291. Administrazioari dagokionez, euskara suspertzeko plangintza estrategikoak burutu, gauzatu eta ebaluatzeko exijitu behar dugu. Honetaz gain, lanpostuen hizkuntza eskakizunak finkatzeko euskara gaitasuna berma dadin eta hizkuntza eskubide eta normalkuntzarako helburuei begirako kontratazio politikari ekiteko ere exijitu behar da.

4.2.3. Sektore ekonomiko bakoitzeko borroka indartu

292. Gure ekintza sindikala langileria bere osotasunean aztertutik finkatu badugu ere, agerikoa da industria, sektore publiko edo zerbitzu pribatuetako borrokek berezitasun propioak dituztela.

293. Sektore ekonomiko bakoitzaren berezitasunak aipatu ditugun faktoreen bila-kaerek zehazten ditu. Baina baita, eta ekintza sindikalaz ari garela, langileria egoeraren ondoriozko borrokarako gaitasunak ere. Horrela bada, guztionak eta guztiei begira egiten ditugun aldarrikapenak sektore ekonomiko bakoitzaren errealitatearen arabera aztertu eta zehaztu behar ditugu.

294. Baina kontuz, LABek ez du alternatiba sindikal bat sektore ekonomiko bakoitzarako. Kontrakoa baizik, langile guztiei begira eraiki dugun alternatiba sindikala esparru bakoitzean baliagarria eta eraginkorra izatea da gure helburua, horrela izateko asmotan hartzen ditugu aintzat sektore ekonomiko bakoitzaren berezitasunak eta baldintza propioak.

295. Lan harremanak ez ezik, Euskal Esparru Sozio-ekonomikoaren eraikuntzan urrats berriak ematea ahalbideratu behar du eremuetan egiten dugun ekintza sindikalak.

296. Ekonomia sozialean ere, gure partehartzea helburu hauen arabera izango da: lan baldintzak eta lan harremanak hobetu, aldi baterakotasuna mugatu, partehartzea indartu eta ekonomia soziala gure hizkuntza eta kulturaren garapenean eta Euskal Esparru Sozio-ekonomikoaren eraikuntzan aktibo bilakatu.

297. Hainbat sektorek daukaten izaera politiko eta soziala kontuan harturik, sektore politikak zehaztu edota, jada definituak ditugunetan, aurrera egiteko erronka berriak konkretatu behar ditugu. Horrela bada, euskal hezkuntza sistemaren eraikuntzan, industria sarearen defentsan, jendartearen egungo beharrei erantzuneko dien kalitateko osasun zerbitzuen aldarrikapenean edota arrantza sektorea bidegarria izan dadin borrokaren erreferentzia izaten jarraituko du LABek.

298. Hausnarketa hau ezin da ulertu, eta are gutxiago garatu, arestian aipatu dugun klase elkartasuna indartzen ez badugu. Besteak beste, zerbitzu sektoreetan ematen den prekarietate maila eta borroka egiteko dauden baldintza kaxkarrak aintzat hartzea langile horien aldarrikapenak guztion aldarrikapen bilakatzea da, guztion borrokarekin aurre eginez.

4.3. Kolektibo kaltetuenen egoera espezifikoari erantzuneko dien ekintza sindikala

299. Gure borroka orokorrean kolektibo zehatzen aldarrikapen espezifikoak jaso behar ditugu.

300. **Emakumeak:** emakumeak borrokarako subjektua izateak langileriaren erdia borrokara gehitzea ekarriko du. Aukera berdintasuna sindikatu osoaren borroka da, emakumeen zapalketaren aurrean erantzukizunez jokatzeko ez ezik, emakumeak borroka sindikalari lotzeko aukerak eta bideak eskaintzen dituen estrategia den heinean ulertu behar duguna.

301. **"Gaituak":** urritasunak dituzten langileak lan merkatu arruntean pairatzen duten diskriminazioa da aurrez-aurrez dutena, kolektibo honetako lagun gehienak hortik kanpo baitaude.

302. Urritasunak dituzten pertsonen enplegu kuota bat erreserbatu behar zaie enpresa arruntetan, baina erreserba hori ez da egiten. Errealitateak erakusten digu enpresa arruntera pasatzeko bideak ez duela funtzionatzen; hala, EZB (enplegu zentro bereziak) helmuga bilakatu dira berez, hau da, enplegurako aukera bakarra bilakatu dira urritasunak dituzten langileentzat.

303. Horrela, langile hauen zuzeneko kontratazioa exijitzea; erreserba-kuota bete ordez, lan horiek EZBekin azpikontratatzearen kontra borrokatzea; lanpostuak eta laneko inguruneak egokitu daitezela exijitzea dira gure jardueran planteatzen ditugun ekintzak.

304. **Etorkinak:** berez, gero eta prekarioagoa eta arautu gabeagoa den lan merkatuan, etorkinei alderik txarrena egokitzen zaie. Eta, gainera, kolektibo hau prekarietatean lan egitera kondenatzeak langile kolektibo osoaren lan baldintzak eta eskubideak kaskartzeko erabiltzen da. Kolektibo honek pairatzen duen egoera aldatzeko, geure ekintza sindikaleko jardueran, etorkinek, Euskal Herriko gainontzeko langileek dituzten eskubide laboral eta sindikalak izan ditzaten, borrokatu beharrean gaude. Euskal Herriko lantokietan diskriminazio egoerarik ez onartzea izan behar da gure jarrera.

305. **Belaunaldi berriak:** prekarietatea estrukturala dela esateak belaunaldi berrien etorkizuna prekarioa izango dela esatea da. Prekarietatea ez dago bizitzaren fase bati lotua, lan munduan sartzeko onartu behar den, baina denboraz gaindituko den egoera. Etorkizuneko perspektiba honek belaunaldi berriak kaltetzen ditu bereziki, aldaketa aukerarik ez ikusteak aldaketak bultzatuko dituen borrokatik aldentzea dakarrelako.

306. Jakina da langile guztiok ez dugula borroka egiteko aukera berdinak, prekarieta-teak guztiok kaltetzen gaitu baina ez da berdina guztion egoera. Langileak zatiturik borrokarako gaitasuna indargabetzea helburu duten estragien aurrean, borrokaren aldeko apustua egitea langile guztiei zuzendu behar diegun deia da. Baina, batez ere, egoera iraunkorra eta lan baldintza hobegoak izateagatik, borrokarako egoera hobegoa daukaten langile horien konpromiso eta erantzukizuna azpimarratu behar dugu.

4.4. Negoziazio kolektiboa

307. Aberastasuna banaketaren bitartez prekaritatea murrizteko borroka izango da gure lehentasuna enpresetan eta sektoreetan. Negoziazio kolektiboak borrokaren bidez berreskuratu behar ditugun espazioak neurri zehatzetan gauzatzeko aukerak eman behar dizkigu.

308. Negoziazio kolektiboak duen esangura bere osotasunean ulertuta finkatu behar dugu gure estrategia. Badauden hitzarmenak negoziatzea baino haratago eginez, negoziazio kolektiboa langileoi enpresa buruen aurrean modu kolektiboa agertzeko aukerak ematen dizkigula eta lan harremanen desarautzeari aurre egiteko bitartekoa dela ulerturik jardun behar dugu.

309. Egungo administrazioek ez dituzte langileak legeriaz babesten, negoziazio kolektiboa utzikeria horren ordezkatzailerik bihurtu da, momentu honetan langileak babesteko funtzioa betetzen duena. Hitzarmenek aurrerapausoak lortzeko baino atzerago ez egiteko harresi lana betetzen dute; hitzarmen kaxkar bat hitzarmenik ez edukitzea baino hobe den ikuspegia indartzen du egoera honek.

310. Kontuan harturik zein den indar korrelazioa, harresia geroz eta ahulagoa da harresia jartzeko beharra edukien kaltetan izaten ari delako. Baina batez ere, sindikatuok negoziazio kolektiboa aztertu eta egiteko ikuspegia murrizten ari da. Dauden hitzarmenenetara mugatzen dugu negoziazioa eta nekez lortzen ditugu finkatzen ditugun helburuak, etsipena eta jarrera defentsiboa hedaturik.

311. Argi dago ekintza sindikalaren eta negoziazio kolektiboaren arteko lotura erabatekoa dela. Ekintza sindikalak negoziazioei jarrera erasokorraz heltzea ahalbideratzen du eta, era berean, negoziazio kolektiborako estrategiak ekintza sindikala bera elikatzen du. Langileek aurrerapausoak lortzeko egiten dute borroka, negoziazioaren bidez aldarrikapenak eskuratu daitezkeela ikusteak borroka elikatzen duelarik.

4.4.1. Negoziazio kolektiboa borrokarako tresna

312. Administrazioaren konplizitatea duen eta legeria bere neurria egina duen patronal publiko zein pribatuaren jarrera baldintzatu nahi badugu, aberastasunaren banaketa orekatua eta lan baldintzen hobekuntza nahi badugu, azken batez, kapitalaren interesei aurre egin nahi badiegu, langileengan dagoen aldaketarako indarra aktibatu behar dugu.

313. Ez digute ezer oparituko, langileok egoera honen aurrean oldartzen ez bagara, lan munduan eta jendarte eremuan gertatzen ari den etengabeko prekarizazioak ez du etenik izango eta areagotu egingo da. Gauzak honela, prekaritatearen aurkako borroka gure eguneroko ekintza sindikalaren erdigunean kokatzeko pausoak egiten jarraitu behar dugu.

314. Negoziazio kolektiboa lan harremanetan boterea borrokatzeko tresna eraginkorra izatea lortzeko konfrontazioa indartu behar dugu; bestela negoziazio kolektiboa patronalak bere lan harreman eredia inposatzeko jartzen dituen joko arauak onartzea beste aukerarik eskaintzen ez duen antzerki hutsa da.

315. Enpresariak duten jarrera ofentsiboari aurre egingo dion eredu sindikala garatu behar dugu. Premisa hau ondo barneratua ez badaukagu, egunerokotasunak jaten gaitu, konturatu orduko hitzarmenaren sinadura bera helburu bilakatzera eramaten gaitu; soldatetan, prekarietatearen aurkako borrokan, lan osasunean, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunean... aurrerapausorik egin ez bada ere.

316. Langile eta enpresarien arteko norgehiagoka horretan, negoziazio kolektiboan eraginkorra ez den eredu erritualista horretatik ihes ez egitea oso kaltegarria da LAB bezalako sindikatu sozio-politiko eta klase sindikatu batentzat. Lan honetarako badaude beste sindikatu batzuk.

4.4.2. Sektore arteko negoziazio esparruaren erreferentzia

317. Sektore arteko ekintzaren ardatzetako bat enpleguaren aldeko proposamena izango da. Proposamenaren helburua kalitateko enpleguaren aldeko borroka indartzea da, edukietan zein dinamiketan. Borroka hau negoziazio kolektiborako gure erreferentzia ere izan behar da.

318. 1997-1999 urteetan 35 orduekin eta soldata sozialarekin egin genuen moduan, prekarietatearen aurkako eta kalitateko enpleguaren aldeko estrategia orokorra abian jarri behar dugu. Sindikalismoan borrokaren beharra sustatzeko proposamena izan behar da, enpleguaren aldeko borroka erreala pizteko.

319. Langileen arteko elkartasun tresna izan behar da. Langile subjektua berrosatu, indartu eta errealitate berriak integratzeko, proposamena ezinbestez lantokietatik haratago joan behar da.

320. Enpleguaren aldeko ekintza sindikalaz aldarrikapenak eta langileak indartu behar ditugu, negoziazioetan patronalaren aurrean bestelako indarrekin eta jarrera tinkoagoekin agertzea ekarri behar du.

321. Kalitateko enpleguaren aldeko borrokan sektore guztietako langileak aktibatu behar ditugu, neurri eraginkorrek negoziatzeko aukerak sortuko dituen erreferentzia finkaturik. Sektorearteko negoziatorako esparrua aldarrikatu behar dugu, eta ekintza sindikalaren bidez, patronalaren egungo erosotasuna apurtu.

4.4.3. Negoziazio eremuak eta iraupena

322. LABen apustua sektorearteko, sektoreko eta enpresako esparruak lotuko dituen negoziazio kolektiboa da. Sektorearteko guneak ekintza sindikal eta negoziazio kolektiboko beste eremuak dinamizatu eta elikatu behar ditu.

323. Era berean, sektoreko hitzarmenak eta enpresa hitzarmen edo akordioak osagarriak dira; enpresa eremua ez da sektorearen ordeko negoziazio eremua, baina sektoreak ere ez ditu ordezkatzeko enpresetan burutu beharreko dinamika eta aldarrikapenak.

324. Eremu bakoitzaren zeregina ezberdina da, sektoreko hitzarmenari langile guztientzat oinarritzeko eskubideak ezartzea dagokio eta enpresa hitzarmenek batez ere prekarietatearen aurkako eta kalitateko enpleguaren aldeko edukiak lortzeko balio behar dute, enpresaren errealitate sozio-ekonomikoren eta indar korrelazioaren arabera. Eremu sektorialak ere, muga gehiago dituen arren, badu zereginik atal honetan.

325. Eremuen eztabaidan negoziazio kolektiboaren desegituraketa indartzen ari den hitzarmenaren ugaltzea ere aztertu behar dugu. Jarduera ekonomikoei lotuta dauden sektoreko hitzarmenen sakaba-

naketa ematen ari da hainbat sektoreetan. Zerbitzu pribatuak izan daiteke adibide esanguratsuena baina esparru sozio-komunitarioan joera berdina da.

326. Negoziazioa sektoreko hitzarmen txikietan sakabanatzeak indarraren sakanaketa dakar eta gainera, askotan sektoreko indar korrelazio ezberdinek eragindako zatiketak izaten dira. Joera honen aurrean gure jarrera finkatu behar dugu jarduera ekonomiko berean kokatzen ditugun eta pareko arazoak dituzten kolektiboak gehiago ez zatitzeko.

327. Egun oraindik ere asko dira Euskal Herrian Estatuko hitzarmenen menpe dauden langileak. Ia langile guztiak Ipar Euskal Herriaren kasuan. Negoziazio esparru horiek gure eremura ekartzea aldarrikatzen jarraitu behar dugu, langileen lan baldintzak kaskartzen dituztelako eta Lan Harremanetarako Euskal Esparrua eraikitzearen kontrakoak direlako. Nahi hau gauzatzen ez den bitartean, Estatu mailako negoziazio mahai horietan egoteko eskubidea aldarrikatuko dugu, baina bertan parte hartu edo ez gure proiektu sindikalerako izango duen interesaren arabera erabaki beharko da.

328. Edozein kasutan, sektore edo enpresa mailako hitzarmenaren negoziazioan parte hartzekotan, hemen negoziatzeko eskubidearen aldarrikapenaren kontra-koa izan ez dadin, gune hori negoziazioa euskal esparrura ekartzea eskatzeko baliatuko dugu. Hitzarmenaren sinadura baztertu egingo dugu, gure ildoarekin kontraesanean sortzen duelako, eremu estatala indartzen duen heinean, eta gainera indar korrelazioak direla eta gure sinadura inoiz ere ez delako erabakigarria izango honelako gune batean.

329. Badago beste errealitate bat kontuan hartu beharrekoa, bertoko enpresak direnean eta Estatu mailan lan zentroak dituztenean. Erabakigunea hemen dagoenean eremu horietan negoziatzea eta akordioetara iristea ez dugu baztertzen.

330. Multinazionalak Estatuaren gainetik sortzen dituzten eremuetan egon gaitezke, beti ere, elkartasun eta borrokarako ikuspegiarekin bada eta ez enpresa bakoitzean burutu daitekeen dinamika sindikala indargabetzeko.

331. Negoziazio eremuak aztertzean, kontuan izan beharrekoa da era berean, nola baldintzatu dezakeen jatorrizko enpresak deszentralizatutako enpresako ekintza sindikala edo negoziazio kolektiboa, produkzio sisteman gertatzen den zatiketaren ondorioz.

332. Iraupena: garrantzi berezia duen gaia da. Patronalarentzat iraupen luzeko hitzarmenak helburu bilakatu dira eta honen aurkako jarrera azaldu behar dugu. Sindikatuak ez du iraupena negoziatu behar bestelako aldarrikapen batzuen trukean.

333. Enpresariei baino ez die mesede egiten, bake soziala bermatzen duelako eta hitzarmen hori indarrean dagoen bitartean badituztelako bitarteko nahikoak bertan jasotzen diren hobekuntzak indargabetzeko. Sindikatuok, aldiz, behin akordioa sinatuta esku lotuak gaude adostutako punturen bat aldatu nahi izan ezkerro.

4.4.4. Negoziazioaren oinarriak

334. Ekintza sindikalaren bidez borrokatuko ditugun edukiak dira, noski, negoziazio kolektiboan ere aldarrikatu eta borrokatuko behar ditugunak. Enpresa eta

S Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

sektore bakoitzeko errealitatea aztertutik definitu behar ditugu zeintzuk diren negoziazio bakoitzari begirako neurri zehatzak.

335. Ariketa hau jarrera erasokorraz egin behar dugu, baina are eta garrantzitsuagoa da hasierako jarrerari, ondoren, negoziazio prozesuan ere, eustea. Aurkezten dugun plataformak finkatzen ditu gure aldarrikapenak patronalaren aurrean, baina gure jarrera negoziazioetan agertzen duguna da, indarra hortxe erakutsi behar dugu, beraz.

336. Negoziazioa borrokarako esparrua dela jakinik, gure indarra ez dago patronalaren aurrean izan dezakegun negoziatzeko trebezian, langileak edukien defentsarako borrokara ekartzeko dugun gaitasunean baizik. Negoziazioei begira aktibatzen dugun langile borroka da hitzarmenaren bilakaera zuzendu behar duena.

337. Klase gatazkaren momentu korapilatsu honetan berebiziko garrantzia du negoziazio bakoitzari begirako helburuak alde aurretik definiturik jarduteak. Negoziazio prozesuaren bilakaeraren arabera gure interbentzioaren azterketa egin behar dugu, baina ez helburuena.

338. Helburuak aldagarriak badira helburu izateari utzi eta erreferentzia huts bilakatzen dira. Helburu jakinik gabeko negoziazioen emaitza negoziazio kolektiboaren izaera estrategikoa nabarmen kaltetzen dute, azkenean momentuko egoeren araberrako erabakiak hartzen ditugulako.

5. Ekintza sindikala indartzeko bitartekoak

5.1. LABeko kideak, aldaketak eragiteko militanteak

339. Aldaketak posible direla sinesten dugu irmoki. Alternatiba badago eta horretan du sorrera LABeko militanteon gaitasunak aldaketen motorrak izateko.

340. Aldaketak posible direla eta gure eskutan dagoela sinestea ez da nahikoa. Gure ideiak gorpuzten jakin behar dugu, proposamenak gauzatzeko eta garatzeko gai izan behar gara. Alternatibaren alde lan egin behar da, eta batez ere, eraginkorrek izanez gure lanean.

341. Jakin badakigu militantzia eta eredu sindikala direla gakoak. LABeko militantziaren kontzeptua betidanik ikuspegi integralduna izan da, sindikatuaren izaera sozio-politikoan izan du iturburua, langileen aldeko sistema politiko eta sozial desberdin baten alde lan eginez. Gure eredu sindikalean konfrontazioa aurkituko dugu, klase gatazkan erasokorra izatea derrigorrezkoa baita, alternatiba sozial eta politiko horren bila.

342. Erreferentzialtasuna irabazi dugula erakusten dute hauteskunde sindikalen eta afiliazioaren datuek; geroz eta gehiago dira LABen eredu sindikalaren alde egiten duten langileak. Gure interbentzioarekin indartzen eta batzen gara, horrela bada, ezinbestekoa dugu militantziaren lana aitortzea, kolektiboarena zein norbanakoena.

343. 7. Biltzarra testuinguru korapilatsuan burutzen ari gara, instituzioen eskuetatik neoliberalismoaren erasoaldian, patronalaren aldeko indar korrelazioan eta zailtasunak klase jarreretan aurrera egiteko. Baina langileen kontrako antzeko garaiak pasa ditugu eta esperientziak esaten digu sindikalismoa ikuspegi ofentsiboarekin berraktibatzeke gai garela.

344. Ez dago irtenbide magikorik, sistemak borroka alde batera uzteko sortzen dituen tranpetatik ihes egitea eta aldaketarako motorra izateko gure hautua berrestea dagokigu. Sindikalismoa ideologikoki gorpuzteko, indarrak metatzeko eta erantzuteko zein mobilizatzeko gai den sindikalismoa behar dugu eta LAB aitziindari izan behar da ibilbide horretan.

345. Langileekin zuzenean lan egitea, eguneroko interbentzioa lantokietan zein kalean, eta gure jardueran koherenteak izatea dira gure eredu sindikalaren nortasun ikurrak. Horrelako eredu aurrera ateratzeko, gure aktibo nagusia militantziaren konpromisoa izan da eta izaten jarraituko du.

5.2. Antolakuntza sendotzea, ezinbestekoa

346. Botereek sakonki garatu duten "zatitu eta garaitu" estrategia zaharrari kontra egiteko bidea ere zaharra da. Elkartzea dugu hau, antolatzea, alegia: lantokietan, langileak, eta herrietan, indar sozialak.

347. LABeko militantzia batez ere lantokietan dago barreiaturik. Gurea, nagusiki, lan mundua da eta horixe da sakonki jorratu behar dugun eremua. Lantokia espazioak irabazteko lehen eremua dugu, gerora diskurtso orokorrak egitea posible egingo dituen. Baina herrietan ere badugu zer esan eta zer egin. Epe luzerako aldatetaz ari gara hitz egiten eta bidea urrats txikiekin egingo dugu, lantokietan, lan munduan eta herrietan jardunez.

348. Militantzia hedatzeak duen garrantzia begi bistakoa da. Sindikatua handitzeak, nahiz afiliazioan nahiz hauteskunde sindikaletan, enpresa, lantoki, herri eta eremu gehiagotara iristeko aukera ematen digu eta espazioak irabazteko aukerak biderkatzen ditu. Antolakuntzari ez ezik, guztioi dagokigun lana da.

349. Aldaketarako eragilea izatea da gure sindikatuaren funtsa; langilerian badagoen indarra antolatzea eta aldatetaren aldeko borrokara ekartzea da gure erronka nagusia. Norabide honetan lan egin behar dugu LABen bertan, bai eta sindikatutik kanpo ere.

5.2.1. Langileen antolakuntza

350. Gure diskurtso eta praktika lantokietaraino helarazteak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Lantokietan egin behar dugun lan ideologikoa eta ekintza sindikala dira langileak guregana gerturatzeko ditugun bitartekoak. Gure jarduerarekin indartzen dugu geure burua, jarduera horrekin bat egiteak ekarriko baitu langileak sindikatuaren antolatze beharra ikustea.

351. Sindikatua langileak antolatze tresna den heinean, eskaintza organizatibo egokia egiteko, berebiziko garrantzia du langileria egoerari begiratzeak. Lan errealtate berriei eta langileria baitan dauden berezitasunei erantzuneko dien antolakuntzaren berrikuspenean iraunkorra izan behar da. Emakumeek borroka egiteko duten oztopo bereziei erantzutea, diskriminazio egoeran dauden kolektiboekiko proposamenak bideratzea, belaunaldi berriak borroka sindikalean integratzeari garrantzia ematea... aldaketa sozialak gauzatzeko guztion indarrak behar ditugu, beraz langile guztiak aintzat hartuz garatu behar dugu geure antolakuntza eredua.

352. Herrietan ere indarrak biltzea izan eta izango da gure ezaugarrietako bat. Batetik, gure militanztziaren parte hartze soziala lantokietatik eta herrietatik bideratu behar delako. Bestetik, LAB ere badelako mugimendu eta eragile sozialen tresna beren aldarrikapenak bideratzeko. Herri sektoreen indarrak batzea eta antolatzea ere bada sindikatuaren erantzukizuna.

353. Antolakuntza eredua langileen zerbitzura jarri behar dugu; sindikatua antolakuntza tresna bada, funtzio horri eusteko gakoa horretan datzalako. Antolakuntza indartsu, arina eta parte hartzea sustatzen duena behar dugu, delegazionismoa baztertu eta afiliazioaren eta militanztziaren ekimen gaitasuna bultzatuko duena. Informazioa eta prestakuntza, sindikatuak egoki eskaini behar dituen bi bitarteko dira, guztion ekarpen gaitasuna hobetze aldera.

5.2.2. Lanaren antolakuntza

354. Gu antolatzea bezain garrantzitsua da gure lana ere ongi antolatzea. Geure lana ordenatu behar dugu eraginkorrak izango bagara, horrek antolakuntzaz hitz egitera behartzen gaitu baina baita geure lan metodoak zaintzera eta hobetzera ere.

355. Plangintzak egin eta plangintzen arabera jardun, hortxe dago gakoa. Estrategia nazionalek sektore eta eskualde bakoitzean egin behar ditugun plangintzei bide eman behar diete, dinamika orokorrak eta lokalak uztartu eta elkar elikatzen modu antolatu batean.

356. Arazoen zain egon gabe, esplotazio errealtate berriei erantzuneko dien ekintza sindikal erasokorra planifikatua eta antolatua izan behar da. Helburuak finkatu, helburuetara gerturatuko gaituzten estrategiak diseinatu eta ibilbidea urratsez urrats egitea ahalbideratuko duten lan plangintzak zehazteko gai izan behar gara.

357. Sindikatuko plan estrategikoak erreferentzia dira lana antolatzeko garaian. Esan eta izan: euskararen normalizazioa edota gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna sindikatuaren helburutzat hartu eta borroka ikuspegi estrategikoarekin antolatu ditugu geure baitan. Garaipenak ez dira diskurtsoetatik etorriko, horiek eskuratze aldera jartzen ditugun bitarteko eta praxietatik baizik.

358. Kanpora begira egiten dugun interbentzioa hobetzeko, barrura begira egiten dugun lana ere hobetu behar dugu. Proposamenak landu, ideologikoki sakondu, eztabaidak bultzatu, gure burua trebatu eta lan ereduak hobetu. Lana antolatzeko denbora hartzea eraginkortasunaren mesedetan egingo dugun antolakuntza inbertsioa da.

5.3. Borroka ideologikoaren garrantzia

359. Indar neoliberaletan beren pentsamoldea guztiongan helarazteko dituzten tresnak ikaragarriak dira. Errealitate horretatik urrundu eta gauzak beste modu batera ikustea ez da erraza inorentzat, ezta LABeko kideontzat ere. Antidoto bakarra borroka ideologikoa egitea da, ideien esparruan ere espazioak irabazi eta indarrak bildurik.

360. Ideiak ere armak dira, kapitalismoak erabiltzen dituen neurrian, geuk ere erabili behar ditugunak suntsiketa ideologikoari aurre egiteko. Indargabetu nahi dituzten balioak defendatzea dagokigu; geure burua eta langileria ideologikoki indartzea klase sindikalismoak mende honetan duen erronka handienetakoa dela argi dugu.

361. Informazioa (berez, ez-informazioa edo informazio manipulatu) botereari eusteko zutabea da. Komunikazio politika iraunkorra garatu eta garatuko dute interes ekonomiko eta politikoak babesteko; hedabideak maltzurki erabilia, pentsamolde bakar eta homogeneoa inposatzeko. Errealitatearen geure irakurketak helaraztea dugu jomuga, eta borroka ideologikoaren oinarrietako bat komunikazio bideak eskuratzea eta ongi zaintzea izango da.

362. Hurbiltasuna da borroka ideologikoa egiteko daukagun aktiborik garrantzitsuenetakoa bat. Jendearengandik, langilearengandik hurbil gaude, beren ondoan lantokian edo herrian, zuzen zuzenean egin dezakegu eta egin behar dugu lan ideologikoa. Borroka ideologikoa egitea guztion erantzukizuna da eta guztion esku dago, LABeko kideok iritzi sortzaileak eta emaileak izan behar gara lankideen artean eta jendartean.

363. Sistemaren adierazpenak auzitan jarri eta langilerian eztabaidak egitea bultzatu behar dugu. Bertsio ofizialetan sinesten ez duen herri batean bizi garela presente edukita, horixe da indartu eta bultzatu behar dugun jarrera behin eta berriro jasotzen ditugun azterketa eta diskurtso politiko, ekonomiko zein sozialen aurrean.

364. Hizkuntzak berak ere ideiak transmititzen ditu. Gure ideiekiko koherentzia islatu behar dugu erabiltzen dugun hitz eta hizkeran. Era berean, gure diskurtsoa eguneratu, egungo terminoetara "itzuli" behar ditugu, hizkera freskoago batekin zuzendu, baina botereen hiztegiaren tranpan erori gabe.

365. Tokiko hedabideak, hauteskunde sindikalak, beste antolakundeekin edo esparruetan ditugun harremanak, herrietan burutzen ditugun ekimenak dira, besteak beste, hurbiltasuneko maila honetako lanabes batzuk.

366. Teknologia berriek komunikaziorako ate asko zabaldu dizkigute eta gero eta hedapen handiagoa dute, bai etxeetara bai enpresetara ailegatzen ari direlako. Komunikazio azkarra, zuzena ziurtatzen dutenez bai egituraren barruan bai delegatu edota afiliatuekin, gehiago garatzeko eta zabaltzeko bitartekoak dira datozen urteotan; egun dauden eta etor daitezkeen bideetan sakontzea ere badugu helburu, beraz.

367. Prestakuntza eta borroka ideologikoaren arteko lotura handia izanik, sindikatuak prestakuntzari duen izaera estrategikoa eman behar dio, sakoneko hausnarketa eginez gure prestakuntza jardueraren inguruan. Prestakuntza egokia eta iraunkorra izan behar da, beraz, bitarteko iraunkor eta eraginkorren eskaini behar dugu. Helburu honi erantzungo dion prestakuntza plan estrategikoa diseinatu eta finkatu behar du sindikatuak.

5.4. Borroka moldeak

368. Mobilizazioan eta borrokan kokatzen dugu aldaketak eragiteko langileriaren gaitasuna; langile borroka indartzeko helburuari begira erantzun behar dugun galdera nagusia izango da hori: nola egingo dugun. Borroka molde guztiak aintzat hartu eta molde bakoitzaren baliagarritasuna azterturik egin behar dugun eztabaida iraunkorra da hori, ez baitago korapilo hau askatzen duen erantzun borobilik.

369. Jakin badakigu borroka ez direla berez pizten, ez direla inolako aurrekaririk gabe sortzen. Borroka baten atzean erabaki eta eraso jakin bati ematen zaion erantzuna egon daiteke; beste batzuetan langileek berea egin duten helburu baten aldeko borrokaren hautua. Dena dela, erresistentziakoa edo erasokorra izan, gatazkaren atzean borrokaren bidea elikatu eta posible egin duen lan sindikala dago gehienetan.

370. Borrokaren helburua eta izaera edozein dela ere, borrokarako aukerak eta baldintzak ez dira egun batetik bestera sortzen. Salaketa dinamika iraunkorra, informazio lana, ideien gatazkan etengabe aritzea daude ondoren erakusten dugun mobilizaziorako eta borrokarako gaitasunaren atzean.

371. Gauzak aldatzeko egiten dugun proposamen bakoitzaren alboan helburua lortzea bideratuko borroka planteamendua marraztu behar dugu. Konfrontazioa pizteko erabiliko dugun estrategia zehatza aurreikusi behar dugu, beti ere borroka esparruaren eta borrokaren subjektua izango diren langileen errealitatea aintzat hartuta.

372. Greba da lan munduan dugun konfrontaziorako tresnarik garrantzitsuena, enpresa edo sektore bat gelditutakoan borrokaren erantzunik gorena ematen ari gara eta langileen arteko elkartasunaren, batasunaren eta antolakuntzaren adierazlerik nagusia dugu. Horrela bada, kapitalari gure lan indarra kentzeak duen balio guztia berretsi nahi dugu.

373. Baina greba ez da lan munduan borroka egiteko dugun molde bakarra eta, era berean, ez dago sektore eta langile guztientzat baliagarria den greba eredu bakarra. Unean uneko eta tokian tokiko helburu eta egoera zehatzen arabera finkatu behar dugu borrokarako egiten dugun aukera, eta eraginkorren izateko irizpideari jarraitu behar diogu beti.

374. Grebak antolatzerakoan ezinbestekoa dugu ekoizpen ereduaren zein den aztertzea, dituen puntu ahulak arakatzea eta horietan eragiteko helburuaz greba mota finkatzea. Gatazkek alde aurretik diseinatuak eta aztertuak behar dute izan; gogorrek eta motzak bilatzen ditugu, borroka eraginkorrenak

emaitza onak denbora ahalik eta laburrenean ematen dituztenak baitira. Dena dela, askotan borrokari eusteko langileek duten gaitasunean datza borrokaren arrakasta, kasu honetan borrokan aurrera egiteko eskaini behar ditugun bitartekoei jarri behar diegu arreta berezia.

375. Ezer ez egitetik greba mugagaberaino tresna ugari ditugu. Guztiak dira baliagarriak eta eraginkorrak borrokaren bidea indartzen duten heinean. Baina, batez ere, guztiak arakatzea da beharrezkoa jakin badakigulako borroka grebara baino ez mugatzeak langile kolektibo asko borroka egiteko aukeratik at uztea ekarriko lukeela..

376. Sarri beren egoera hobetze aldera borroka egiteko arrazoi gehien dutenak greba eskubide efektiboa ez dutenak ere badira. Lan eta bizi baldintzen prekari-zazioak borrokarako ahalmena eta aukerak goitik behera baldintzatzen ditu. Errealitate honek bi norabidetan lan egitera eramane behar gaitu: kolektibo hauetan borroka egiteko prest dauden langileei bitarteko egoki eta errealak eskaini behar dizkiegu; eta kolektibo hauen mesedetan erabili behar ditugu borroka molde eraginkorrenak borroka egiteko aukera dugun sektoreetan.

377. Okerren dauden kolektibo horiekiko erantzukizuna halakotzat hartzea, gutxion partetik, inoiz baino beharrezkoagoa da. Koherentziaz jokatzeko eta horren araberrako jarrerak agertzeko garaia da. Langile finkoek, enpresa nagusietan kokatuak -publiko edo pribatuetakoak- menpekotasun egoeran daudenekiko duten ardura bereziki aipatu nahi dugu, elkartasuna ez ezik, defendatzen dugun eredu eta proiektuaren oinarritzko ezaugarria baita.

378. Gatazkak sozializatzeko garrantzia ere azpimarratu nahi dugu. Kale mailako mobilizazio, salaketa eta abarrek ezin dute ordezkatu enpresaren barruan egin behar dugun lana; baina kanpoan egin dezakegun presioa lagungarria da enpresako borroka indartzeko. Eta, batez ere, borroka lokalak eta zehatzak aldaketa orokorren aldeko borrokaren mesedetan izan daitezela lortzen dugu gatazkaren sozializazioarekin.

379. Komunikazioa beste presio bide bat bezala joratu behar dugu, arazoak eta gatazkak lau haizeetara kaleratu behar ditugu. Tokiko hedabideetan mass-media handiek ematen ez dizkiguten aukerak aurki ditzakegu. Instituzioak interpelatzea ezinbestekoa dugu, gatazkaren konponbidean inplika daitezen, ardura zuzena ez dutenean ere, modu batera edo bestera, beraiek ere egoeraren erantzuleak baitira.

380. Mobilizatorako gure ereduak lantokietan du hasiera, languneetan eta kalean jarraipena, eta behar denean Euskal Herri osora zabalduko dugu. Nazio mailako mobilizazioak beharrezkoak dira, mobilizazio sozialaren momentu nagusiak izan daitezke; baina lantokiak eta marko lokalak dira langileriaren aktibazio erreal eta iraunkorra suspertzeko lehentasuneko esparruak. Eskualdez eskualde zehaztu behar dugu langileak mobilizatzeko eredu eragingarriena zein den, azken urteetako esperientziari jarraiki.

5.5. Indar metaketa

381. Behin eta berriro esan dugunez, borrokatzeko gaitasuna kolektibo osoa aktibatzean dugu, kolektibo osoaren indarrak elkartzeko gaitasunean baitatza gure

S Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an. Barakaldo

arrakastaren oinarria. Borroka zehatza edo orokorra izan, zatiketa dugu geure etsaia eta bat egiteko gaitasuna geure giltza.

382. Sindikatuon artean indarrak batzea aldaketak eragiteko gaitasuna biderkatzeko bidea dela ulertzen dugu. Baina beti ere batasunak oinarri sendoak dituenean, bai helburuetan bai eta egin beharrezko ibilbide sindikalean ere. Zalantzarik gabe, norabide argia duen lankidetzan, aldarrikapenetan ongi kokatua eta mobilizaziorako gaitasuna duena eraginkorra da klase posizioetan aurrera egiteko.

383. Lankidetzan sindikala bultzatzea gure erreferentzia da eta izango da aurrerantzean. Bat egitearen aldeko diskurtsoetatik haratago, sindikatuon arteko indarrak batzeko bideak arakatzearen aldekoak gara, eta beharrezkoak diren inizatibak hartuko ditugu elkarlana bultzatzeko. 2005ean Nazio Biltzarrak finkatutako aliantza sindikaletarako politika berresten dugu, horrenbestez, Euskal Herriak bizi duen aukera politikoen garaiak eta langileria-egoerak bide horren balioa are eta gehiago nabarmentzen dute.

Ponentzia

2008ko maiatzaren 22 eta 23an • Barakaldoko BECen

LAB